



## Kristau Eskolan negoiazioa eskatu dute ikastetxeek eta gurasoek

**Durango** | Ikastetxeetako zuzendariak pentsaurrekoa eskaini zuten atzo, eta gurasoek elkarretaratzera deitu dute gaurko • 8

## EAJ eta PSE-EE ere, etxe dorreen plana "berregokitzearen" alde

**Durango** | 550 etheen plana uztailean onartu zuten, baina indarra galtzen doa. Bitartean, kontsultak data eta galdera barik segitzen du • 6



# Emakume migratzaileen testigantza

Berrizko zentroan elkar ezagutu dute Fatimak, Angek, Ziniek eta Djenabouk. Migratzaileak dira eta bakarrik heldu dira Euskal Herrira. Etxean bizi zuten biolentzia egoeretatik ihes egin dute laurek. Hiruk asilo eskaera eskatu dute eta erantzunaren zain daude. • 2-3

LEHIOR ELORRIAGA

**Ingurumen  
gehigarria**

**San Blas  
jaiak 2019**



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA  
CEPA DURANGO HHI  
Doako irakaskuntza ofiziala**

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)



### IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

### IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



**MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253**  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

### MATRIKULA-EPEA:

**Urtarrilaren 15etik otsailaren 1era**  
**Matrikula egiteko ordutegia:** Astelehenerdik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00  
Ostiraletan: 09:00-13:00



LEHIOR ELORRIAGA

Ezkerretik hasita, Djenabou, Zinie, Ange, eta Fatima.

## Mundua zeharkatuz bizitza berri bati ekiteko esperantzaz

Ihesean heldu dira Euskal Herrira lau emakume afrikar hauek. Afrika zeharkatu dute, euren eskubideak errespetatuko dituzten toki batean bizitza berri bat hasteko esperantzaz. Baina bidean aurkitu dutenak ez du amestu zutenaren antzik

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Sorterria utzi eta Djenabouk, Zinie, Angek eta Fatimak bizitza berri bati ekin diote. Etxean bizi zuten biolentzia egoeratik ihes egitea erabaki zuten lau emakume afrikar hauek. Gorabeheretz betetako bidaia gogor eta luzearen ostean, bat egin dute Berrizko migratzaileen zentroan. Kazetaria berbarik barik uzterainoko istorio latz bakoitzaren atzean emakume adoretsu bat dago bere testigantza kontatzeko prest. Ondo dakite ez direla egoera hori bizi izan duten emakume bakarrak, ezta azkenak ere.

Irailaren 18an zabaldu zituen ateak Berrizko migratzaileen zentroak. Beste herrialde batera bidean Euskal Herritik igarotzen diren adin txikikoen kargu dauden emakumeak, bakarrik dauden emakumeak eta gaixorik daudenak hartzeko asmoz zabaldu zuten Olakuetako aterpetxea. Hala ere, beharrianak horrela eskatuta, azken hilabeteotan Jaur-laritzak eta EDE Taldeak kudeatzen duten zentroa asiloa eskatu duten emakumeen eta gaixoen bizileku bilakatu da. "Neguko denboraldian asko jaisten da Europarako bidean dauden etorkinen kopurua. Orduan, azarotik apirilera bitartean asiloa eskatu duten emakume eta gaixoei zabaldu zaie aterpetxea", adierazi du Gorka Ruiz Berrizko migratzaile zentroko koordinatzaileak. Dagoeneko 59 lagun igaro dira bertatik, eta apiriletik aurrera datu horiek igoera nabarmena izango dutela aurreikusten dute. "Europara bidean hainbat

izaten dira Euskal Herritik igarotzen diren etorkinak; beraz, mugimendu handia izango dugula aurreikusten dugu", esan du. Ruizek aitortu duenez, Gurutze Gorriak Berrizko zentrori bideratzen dituen etorkinetako batzuek pare bat egunez indarrak hartu eta bideari ekiten diote berriro. Beste batzuek, berriz, hamabost egunetik gorako egonaldia egiten dituzte.

Batzuk joan eta beste batzuk etorri. ANBOTOK elkarriketatu dituen lau emakumeek, esaterako, badakite Berrizko euren egonaldia apirilean amaituko dela, asko jota. Eta badakite, aldi berean, egin duten asilo eskariaren erantzuna jaso arte, CEAREk kudeatzen duen zentroren batean lekua izango dutela.

Gaur egun, Berrizko zentroan 20 pertsonarentzat daukate lekua. Emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat logela bana, eta bina logela umeekin dauden familientzat. Zazpi pertsonak egiten dute lan zentroan, herrialde askotako pertsonen laguntzeko eta bizikidetzaren errazteko asmoz. "Jende oso autonomoa da zentro honetan dagoena. Jatekoa sukaldariek prestatzen duten arren, eurak arduratzen dira gainontzeko zereginak egiteaz", esan du Ruizek. Logelak atondu eta jangela eta arropak garbitu behar izaten dituzte, besteak beste.


Olakueta aterpetxeko etorkinek Mesedetakojen laguntza ere izaten dute. Migratzaileei gaztelaniazko eskolak ematea eta alfabetizazioan laguntzea dute helburu.



Fatima

Kamerun, 33 urte

“**Ezkontzera behartu nindutelako hartu nuen joateko erabakia**”



Djenabou

Ginea Konakry, 24 urte

“**Zodiaka zulatuta zegoen. Itsasontzi handi batek atera gintuen handik**”



Ange

Boli Kosta, 35 urte

“**Arriskutsua zen gaixorik bidaiatzea, baina han egotea beldurgarriagoa zen**”



Zinie

Boli Kosta, 30 urte

“**Tratu txarrak jasango ez nuen lurralde batera ihes egitea erabaki nuen**”

**BERRIZ** • JONE GUENETXEA

Alaba txikiagaz Kamerundik irtenda, oinez egin du bidea Fatimak. Bakarrik heldu da Berrizera. Bidean gelditu direnak gogoan ditu, ondo gogoan.

**Zerk bultzatuta irten ziren Kamerunetik?**

Ezkontzera behartu nindutelako hartu nuen joateko erabakia. Lagun batek dirua utzi zion aitari. Aitak ezin izan zuen diru hori itzuli eta gizon horregaz ezkontzera behartu ninduten.

**Ezkondu eta gero, zein egoeratan bizi zinen gizon horregaz?**

Gizon horren laugarren emaztea nintzen. Umeak bata bestearen ostean izan nituen.

“**Oinez egin nuen bide guztia. Bidaiako herri batzuetan hiru hilabeteko egonaldiak egiten nituen. Apurka-apurka**”

Laugarren umea izan nuenean, aitaren etxera itzuli gura izan nuen. Baina aitak esan zidan gizon horregaz bueltatu behar nuela.

**Aitaren ezezkoaren aurreran, zer egitea erabaki zenuen?**

Alaba txikia hartu eta handik joatea erabaki nuen. Umeak hiru urte zituen orduan.

**Zelako bidaia izan zen?**

Oinez egin nuen bide guztia. Bidaiako herri batzuetan hiru hilabeteko egonaldiak egiten nituen. Apurka-apurka. Herrialde ugari pasatu nituen. Azkenak, Oran [Aljeria] eta Maroko izan ziren. Gero, handik Espainiara joan nintzen.

**Milaka kilometroko ibilbidea egin duzu. Zer aurkitu duzu bidean?**

Kamerunetik 10 lagun irten ginen. Desertuan jende gehiago aurkitu genuen, gure moduan. Bidean hildakoen hilotzak ere ikusi genituen, desertuan. Nire alaba ere desertuan hil zen, ur faltagatik.

**Berrizko zentroan zaude orain. Osasun arazoak izan dituzu, eta osatzen ari zara.**

Hona heltzerakoan, medikuarenera joan nintzen. Mioma handi bat aurkitu zidaten, eta ebakuntza egin zidaten. Berrizen ebakuntza horretatik osatzen nabil.

**Hau bidearen geldialdi bat da ala hemen gelditzea gura zenuke?**

Hemen gelditzea gura dut. Asilo eskaera sinatu dut.

**BERRIZ** • J.G.

Zulatutako pateratik itsasontzi batek erreskatatuta heldu da Europara Djenabou. Orain sei hilabete asiloa eskatu zuen eta erantzunaren zain dago. Gustura dago Berrizko zentroan.

**Etiket joatea erabaki zenuen. Zergatik?**

Aita hil egin zen eta osabek ezkontzera behartu gura izan ninduten. Nik ez nuen ezkondu gura. Gure amak ahal izan zuen guztia egin zuen ezkontza saihesteko, baina berak ez zuen erabaki hori hartzeko botererik. Osabek agintzen zuten gurean, eta joatea erabaki nuen.

**Zelan prestatu zenuen bidaia?**

Urtebete egon nintzen alde egin ahal izateko bidaia prestatzen. Lagunekin irten nintzen Gineatik, baina besteek Libiara joan gura zuten. Libiari buruz entzunda nuenagatik, Malira joatea erabaki nuen, eta han bakarrik gelditu nintzen. Aljerian beste lagun batzuekin elkartu nintzen.

**Zein bide zeharkatu duzu?**

Ez da bide erraza izan. Autoz joan nintzen Malira. Hantxe gelditu nintzen, bakarrik konpondu ahal nintzen ikusteko. Sasoi bat han pasatu eta gero, Aljeriara joan nintzen.

“**Berrizko zentroan oso gustura gaude. Beste leku batzuetan ez gara horrela sentitu**”

tzen. Han ahal nuena egiten nuen, bidaiari jarraitzeko dirua lortzeko. Lagunekin nengoenez, Marokora joatea erabaki genuen. Bederatzi hilabete basoan egon nintzen. Saiakera bitan huts egin genuen eta hirugarrenean ontzian pasatzea lortu genuen.

**Pateran zelan heldu zineten Europara?**  
Zaila izan zen. Jainkoak salbatu gintuen. Eguraldi oso txarra egin zuen eta zodiaka zulatuta zegoen. Salbatu egin gintuzten. Itsasontzi handi batek atera gintuen handik.

**Asiloa eskatu duzu hemen?**

Orain sei hilabete eskatu nuen asiloa. Hementxe gelditu gura dut.

**Zer moduz sentitzen zara Berrizen?**

Hemen oso gustura gaude. Beste leku batzuetan ez gara horrela sentitu. Hilabete daramat hemen, eta dagoeneko ezagutzen dut ingurua.

**BERRIZ** • J.G.

Angeren hasierako helburua Frantzia lana aurkitzea zen. Orain, Berrizko zentroan dago.

**Zelan erabaki zenuen bidaiari ekitea?**

Aita hil egin zen eta ama ere bai. Ez nuen inongo laguntzarik. Ezin nintzen eskolara joan. Aitaren anaia gutaz arduratzen zen. Tratu txarrak ematen zizkigun. 59 urteko

“**59 urteko gizon bategaz ezkontzera behartu ninduen. Sasoi hartan, 14 urte nituen**”

gizon bategaz ezkontzera behartu ninduen. Sasoi hartan, 14 urte nituen. Gizon honegaz ume bi izan nituen. Gizonak bere adineko beste emazte bat ere bazuen, eta ni bigarren emaztea nintzen. Biek ematen zizkidaten tratu txarrak. Emakumearentzat bere zerbitzaria nintzen. Joan nintzenean, umeak txikiak ziren. Gurago nuen hirira joan, ile-apaintetan trebea naizelako. Bezero batzuk lortu nituen.

**Hirian lana izanda, zelan erabaki zenuen bidaiari ekitea?**

Bezero bati esan nion egunen baten joatea gurako nuela. Eta bezero horren laguntzari esker hegazkinean Marokora joan nintzen. Marokon ere lanean aritu nintzen, pelukak egiten. Jendeak iruzur egiten zidan. Hala ere, diru apur bat batzea lortu nuen. Han entzun nuen baso batera joan behar nuela.

**Lortu zenuen baso horretara joatea?**

Bai, baina hara heldu nintzenean gaixotu egin nintzen. Osasun arazoengatik hiru hilabete egon nintzen basoan. Esan zidaten arrikutsua izan zitekeela gaixorik bidaia egitea, baina han egotea beldurgarriagoa zen, eta gurago nuen arriskua hartzea. Lehenengo egunean kilometroak oinez ibili eta gero, leku hartara heldu ginenean zodiaka zulatuta zegoen. Bigarren aldian, astebetara, berriro saiatu ginen eta pasatzea lortu genuen. Itsasontzi batek salbatu gintuen. Gaixorik eta ia konortarik barik nengo. Abioneta bat pasatzen ikusi nuen, eta jendea garrasika zegoen. Arrantzontzi batekoek ura eman ziguten eta, ondoren, Gurutze Gorriak erreskatatu gintuen.

**BERRIZ** • M.Z.

Gurasoek xaman bategaz ezkontzera derrigortu zuten Zinie. Senarrak jipoitu egiten zuten, eta ihes egiten saiatzeagatik sei hilez horma bati kateatuta eduki zuten.

**Etiket ihes egin zenuen. Zergatik?**

Sufrimendu gehiegi zegoelako. Gurasoek gure herriko nagusi bategaz ezkontzera derrigortu ninduten. Bera xamana zenez, ezin zen ezkondu ablazioa egin barik zegoen emakume bategaz. Nik uko egin nion ablazioa egiteari, baina gurasoek, tradizioa zela eta, derrigortu egin ninduten.

**Ablazioa egin eta beragaz ezkondu zinen?**

Bai. 2015ean ablazioa egin eta ezkondu egin ginen. Gizonak momentu batean ere ez ninduen errespetatu. Behartu egiten ninduen. Nigaz umeak izatea besterik ez zuen gura, eta adinez nagusia zenez eta lortzen ez zuenez, bere anaiagaz umeak izatera behartu ninduen. Orduan, ihes egin behar nuela erabaki nuen.

**Lortu zenuen ihes egitea?**

Ihes egin nuen, baina harrapatu egin ninduten. Orduan, senarrak, xamanak, zoratu egin nintzela esan eta kateatu egin ninduen. Hile batzuk geroago, lagun baten bisita izan nuen. Senarrak zoratuta nengoela esan zion. Lagunari nire egoera kontatu nion, familiak saldu egin ninduela eta gizonak jipoitu egiten ninduela. Gainera, azken hileak kateatuta neramatzala ere ikusi zuen. Sei hilabete kateatuta egin ostean, lagunak ihes egiten lagundu zidan.

**Nolakoa izan da hona heldu arteko bidaia?**

Bidaia gogorra izan da. Hasierako asmoa Marokon nuen izeba bategaz bizitzen geratzea zen, nire herrian ume bat utzi

“**Uko egin nion ablazioa egiteari, baina, gurasoek, tradizioa zela eta, derrigortu egin ninduten**”

nuelako. Baina jipoitzen ninduen gizonarengana itzuli behar nuela esan zidan izebak, tradizioak horrela agintzen zuelako. Beraz, patera hartu eta tratu txarrak jasango ez nuen lurralde batera ihes egitea erabaki nuen. Egun, Berrizen oso gustura nago eta asiloa eskatu dut hemen geratu ahal izateko.

## Atxondoko energia elektrikoa Zaldibarko Udalaren bitartez kudeatuko dute

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Energia berriztagarriak bultzatu eta egun udalek energian ordaintzen duten "dirutza" aurrezteko asmoz, eskualdeko lau herriren artean —Atxondo, Zaldibar, Izurtza eta Mañaria— hitzarmen bat egitea erabaki dutela jakinarazi zuen David Cobos alkateak joan zen asteko osoko bilkuran. "Hitzarmen honen helburu nagusia herrietarako prezio hobea lortzea da, eta denok lan berdina ez egitea, noski", adierazi zuen Cobosek.

Funtzionamenduari dagokionez, Zaldibarko Udalak pleguak egin eta energia elektrikoaren kudeaketa konkurtsora aterako du. Ondoren, adjudikazioa egiterako orduan udal bakoitzak ordezkari bat izango du.

## Autodefentsa feministarako deia egin dute Azeri Gorriek, Berrizen

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Eraso sexisten inguruan hitz egin, emakumeen egoeraz jabetu eta ahalduntzea bultzatzeko asmoz, autodefentsa feminista antolatuko dute Berrizen Azeri Gorriek eta udalak.

## Otsailaren 1ean eta 8an egingo diren tailerretan parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da

Kultur Etxean otsailaren 1ean eta 8an egingo diren tailerretan 18 urtetik gorako emakumeentzat izango dira. Izena urtarrilaren 30a baino lehen eman beharko da, [gizartea3@berriz.eus](mailto:gizartea3@berriz.eus) helbidera idatzita.

# Hamar urte bete dira lurretako Iturburu inguruan ortu ekologikoak ipini zituztela

Urte hasiera honetan, ortuak eskuratzeko eskari gehiago egotea aurreikusi dute, hutsik dauden plazak betetzeko



Iturburuko ortu ludikoen sarrera.

**IURRETA • A.B./ J.G.**

Iurreta aitzindaria izan zen "aisialdirako eta osasunerako alternatiba" modura ortu ekologikoak jartzen. 40 lursail egokitu zituzten horretarako Iturburuan. Hamar urteren ostean, 30 lursail baino gehiago erabiltzen dituzte beste horrenbeste herritarrek, zaletasun moduan nekazaritza ekologikoa

eta jasangarria landuz. Gainera, lurretako Udalaren apustua hobekuntza ekologikoak eta jasangarriak garatzea da. Besteak beste, euri ura batzeko ureztapen sistema natural bat sortu dute lursailen erabiltzaileek, 7.000 litro ur izan ditzaten.

Orain 10 urte ekimena martxan jartzeaz batera, bere ortu zatia

esleitu zioten Justo Pererari. Extremaduran gurasoak nekazariak zirenez, esperientzia handia zuen. "Herrian, familiak kontserba-entzatat lan egiten zuen. Ekoizpen handia izaten genuen", dio. Eskarmentua eta denbora izanda, Pererak erraz ekin zion lanari. Bere hazitegi propioa dauka. Neguan, ia ez du ezer ekoizten. Martxoan

ekingo dio lanari, eta apiril-maiatzean izango du lanik gehien. Ortuaren ordu gutxi egoten dela aitortu arren, konstantziaren garrantzia azpimarratu du iurretarrak. "Egunean ordu bi inguru egoten naiz ortuan, baina ia egunero". Ortuaren jasotako barazkien eta dendetako artean alde itzela nabaritzen dela dio Pererak. Ekoizpena bere goreneari dagoeneko, jeneroa izoz-

**A.Seoane: "Ortuak bizia ematen dit; bururako eta gorputzerako osasungarria da"**

kailuan gordetzen du. Seme-alabak eta lagunak ere hornitzen ditu.

Angel Seoane iurretarra ere ortuzalea da. Iturburuko ortu ludikoetan 8 urte daramatza. Ezer egin barik egoten ez dakienez, ortuaren lantzea erabaki zuen. "Landatutakoak duen kalitatea nabarmena da. Letxugak letxuga zaporea du. Gainera, niri bizia ematen dit; bururako eta gorputzerako osasungarria da", dio Seoanek. Ortuaren ekoizpena gain, jendeagaz hartu-eman izateko ekimen gomendagarria dela dio. "Denbora librearen duen erantzutzat izan behar da. Ezin da obligazio moduan hartu", dio iurretarrak.

## Slacklinea, parkourra eta hip-hop praktikatzeko aukera dago Elorrian

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Herritarren artean kirola sustatzeko aldera, hiru arlo nagusi jorratzen dituen Elorrio Osasuntsua ekimena jarri zuen martxan udalak. Eskola kirola, kirol astea eta domeketako jarduerak dira arlo horiek. Urtarrilaren 27an, domeketako hirugarren ekimena egingo dute,

oraingoan kaleko jarduerekin lotutakoa. Domekan, herritarrek slacklinea, parkourra eta hip-hop praktikatzeko aukera izango dute.

Elorrio Osasuntsuaren baitan antolatuko duten ekimen hau 12:00etan hasiko da, herriko plazan. Euria egiten badu, frontoira lekualdatuko dute.



luz Elorrio Osasuntsua ekimeneko ekintza batean ateratako argazkia.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2019ko urtarrilaren 25a  
17. urtea - 748. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

2015 **Bikam**  
independente  
kulturoi erantzuten  
dion komunikabidea

PEFC  
www.pefc.es

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasesumaga Guezuraga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Bizkaia**

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Hiri Ekimena koalizioan aurkeztuko da maiatzeko udal hauteskundeetara

**ZORNOTZA • J.D.**

Ezker Anitzagaz, Podemosegaz eta Equogaz batu ditu indarrak Hiri Ekimena eta eurekin koalizioan aurkeztuko da maiatzeko udal hauteskundeetara.

Iazko irailean egindako batzarrera batutako %85ek koalizioaren alde egin zutela informatu dute ohar batean. 2015eko udal hauteskundeetara hautesle-talde moduan aurkeztu ziren, baina azken lau urteetan "testuinguru politikoa aldatu" egin dela uste du Hiri Ekimena Alba Gutierrezek.

Biltzar bidezko ereduari "legitimitate osoa" emango diote. "Erabakiak herritarrek hartzea gura dugu. Formatua aldatuko da, baina ez funtzionamenduen esentzia", gehitu du.

## Iaz baino 92.000 litro sagardo gutxiago ekoiztu arren, "kalitate onekoa" izango da

"Eguraldiak ez digu lagundu. Horren kontra ezin dugu ezer egin", azaldu du sagardogileen elkarteko presidentek

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Bizkaiko sagardogileek 108.000 litro ekoiztu dituzte aurten, iaz baino 92.000 gutxiago. "Negua lehorra izan zen eta hasieran sagar gehiago izango genuela uste genuen, baina eguraldiak ez digu

Zornotzako Uxarte sagardotegian egindako aurkezpenean. Iaztik upeletan gordeta duten sagardoa ere erabiliko dute. "Kalitate oneko sagardoa izango dugu eta ez da faltako", segurtatu du Intxaurragak.

**Onintza Enbeita enbaxadore**

Onintza Enbeitak adierazi zuen berarentzat "ohore bat" dela Bizkaiko sagardoaren enbaxadore izatea. "Sagardogile elkartea aspalditik ezagutzen dut. Askotan elkarlanerako aukera izan dugu bertsoetan edo ekitaldietan. Hazten ikusi nauten eta hazten ikusi ditut", adierazi du Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapeldunak. Berak egin zuen denboraldiko lehen txotxa.

**Aurten, Onintza Enbeita bertsolaria izan da Bizkaiko sagardoaren enbaxadore**

lagundu. Horren kontra ezin dugu ezer egin", adierazi zuen Aitor Intxaurruga Bizkaiko Sagardogile Elkarteko presidentek eguaztenean



Uxarte sagardotegian hasi zuten Bizkaiko aurtengo denboraldia, eguaztenean.

## Otsailaren 13an aurkeztuko dituzte kirol gunerako aukerak

Prozesuan zehar gaiarekiko interesa erakutsi duten herritarrek proposamenak bozkatu ahal izango dituzte

**MAÑARIA • J.D.**

Mañariko Udalak herritarren proposamenak jaso ditu, frontoiko kirol gune berria zelan hornitu jakiteko. Jasotako ideiak saio batean plazaratuko dituzte, otsailaren 13an. Ordutik aurrera, proposamenik gustukoena bozkatzeko

epea zabalduko dute. Prozesuan interesa erakutsi duten herritarrek parte hartu ahaliko dute bozketan. Hainbat bide daude horretarako: etxean jasotako eskuorrietan hori adieraztea, eta internetez zabaltzen dabiltzan galdetegia betetzea dira aukeretako bi.



Egunotan frontoi ingurua atontzeko lanetan dabilta. Besteak beste aterpea handituko dute.

## Baserrien izenak dituzten bide seinaleak jarriko dituzte auzoetan

**MALLABIA • J.D.**

Mallabiko auzoetako baserrien izenak dituzten seinaleztapeak jarriko ditu udalak aurten. Baserrien kokapenaren arabera, seinale batzuk euren ondoan jarriko dituzte eta beste batzuk haietara joateko bidegurutzeetan.

Herritarrei baserrien izenak eta kokapena ezagutara ematea da helburu bat, baina, horregaz batera, larrialdi zerbitzuko lana erraztea ere gura dute, baserriren batera joan beharra daukatenean.

Seinale berrien zutoinak egurrezkoak izango dira eta kartelak, binilozkoak. Lanak otsailean zehar abiatzea da helburua, eta aurrekontuetan 12.000 euroko diru atala gorde dute zeregin horretarako.

**TXINTXIRRI ELORRIKO IKASTOLA**  
San Pio, 3  
ELORRIO  
Tel.: 946 582 261  
elorrio@ikastola.eus

**ARDURAZ HEZI,  
NORTASUNEZ HAZI**

[www.elorriokoikastola.eus](http://www.elorriokoikastola.eus)

**MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK:  
Urtarrilak 28tik otsailaren 8ra**

ikastolenelkartea Q KJVa Ikastola

# Durango tren estazioko 550 etxeen plana egungo beharrianetara "berregokitzeko" eskatu dio udalak Eusko Jaurlaritzari

Udal gobernua dekretu bidez onartu zuen uztailean Eusko Jaurlaritzaren estazioko eremurako plana, baina orain bestelako iritzia erakutsi du; bestalde, kontsultarako data eta galdera ez dituzte oraindik zehaztuko, udalak urtarrileko osoko bilkuran adosteko asmoa iragarri zuen arren

## DURANGO • MARKEL ONAINDIA

18 pisuko bost dorre eta beste bloke bat eraikitzeke plana, 550 etxe gutzira, ekainean aurkeztu zuen Jaurlaritzak udaletxean, eta uztailean dekretu bidez onartu zuen udaleko gobernu taldeak. Baina asteon erakutsitako iritzia bestelakoa da. Plana "berregokitzeko" eskatu dio Aitziber Irigoras alkateak Arantxa Tapia sailburuari gutun bidez.

### "Eguno eta etorkizuneko beharrianak" kontuan hartzea eskatu dio Irigorasek Tapiari

2006an plana diseinatu zenetik, "egoera soziodemografikoa nabarmenki aldatu dela, eta ondorioz etxebizitzaren beharrik ere aldatu direla" arrazoitu du Irigorasek. "Eguno eta etorkizuneko beharrianak" kontuan hartzea eskatu dio Tapiari. Udal gobernuko beste alderdiaren

alkategaiak ere, PSE-EEko Jesica Ruizek, etxe kopurua murriztu eta ETSgaz negoziatzea proposatu du.

### Galdeketa egunik ez Galdeketa beharrezko 3.000

sinadurak balioztatu zirenean, data eta galdera urtarrileko bilkuran zehazteko asmoa iragarri zuen udalak. Baina, ez da horrela izango. Eguazteneko Ogasuneko batzordean, Aitziber Irigoras alka-

teak (EAJ) kontsultaren prozesurako batzorde berezi bat sortzea proposatu zuen. Martitzeneko bilkuran onartu, eta gero hasiko da batzorde lanean. Irigorasek azaldu zuen, bere ustez, batzordean ahol-

kularitza juridikoa jaso behar dela lehenik, eta Basauriko kontsultaren kasua ezagutu ere bai, prozesua "bermeekin" garatzeko. Erabakiko kideak ere egongo dira batzordean. Urtebeteko epea dago kontsultarako, tartean hauteskundeak direla.

Dani Maezturen (EH Bildu) iritziz, "prozesua atzeratu" egingo du batzorde horren sorrerak. "Argi dugu kontsulta egin gura ez duten alderdiak daudela hemen". Hobe ikusten du data eta galdera orain zehaztea, eta gero udalak lan logistikoa garatzea. Jorge Vareleri (Herriaren Eskubidea) ez zaio ulergarria egiten galdeketa obra martxan dagoela egitea. Alderdi biek proiektua aurretiaz gelditzea eskatu zuten prentsaurrekoan.

Erabakiren ustez, udalak hainbat lan aurreratuta izan behar litzuke jadanik. "Atzerapena dago, eta uste dugu nahita dela", kritikatu zuen Unai Vallelek. Oposizioak lez, kontsulta egin arte proiektua etetea eskatu zuen. Irigorasek txosten bat eskatuko du hori aztertzeko.



Parke eta jolasgunez gainera, 18 pisuko 5 etxe dorre eraikitzea aurreikusita du Jaurlaritzak trenak libre utzitako eremuan. LEHIOZ ELORRIAGA

## Durango EAJk Elkororibe buru duen hauteskunde zerrenda aurkeztu du

Jeltzaleek prentsa ohar bidez esan dute "ilusioa, gazte-jendea, kudeatzeko gaitasuna eta Durangorekiko konpromisoa" batzen dituela alderdiaren hautagaitza taldeak

### DURANGO • J.G. / M.O.

Durango EAJren afiliatuek maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako zerrenda aukeratu zuten joan zen eguaztenean eginiko batzurrean. Hurrengo udal hauteskundeetarako Mireia Elkororibe buru duen EAJren hautagaitzak "ilusioa, gazte-jendea, kudeatzeko gaitasuna eta Durangorekiko konpromi-

### Sara Ocejia arkitektoa izango da bigarrena, eta Ager Sardui kazetaria hirugarrena

soa" batzen dituela azpimarratu dute prentsa oharrean. Sara Ocejia

arkitektoa izango da bigarrena, eta Ager Sardui kazetaria hirugarrena. 21 hautagaietatik 11 emakumeak dira eta 9 gizonak. Aipagarria da, esaterako, lehen zortzien artetik sei emakumeak direla.

Bestalde, azken legealdi honetatik Iker Ocejia zinegotziak bakarrik errepikatuko du zerrendan, baina 20. postuan.



EAJren hautagaitza zerrenda osatzen duten hainbat talde argazkia, Durango Batzokian.

## Abesti feministen lehiaketaren bigarren edizioa antolatu du Durango Udalak

### DURANGO • M.O.

Abesti feministen lehiaketaren bigarren edizioa aurkeztu dute, 16 eta 30 urte arteko gazteentzat. Martxoaren 9an izango da finala, Andra Marian egingo

### Martxoaren 9an izango da finala, Andra Marian egingo den kantaldiagaz

den kantaldiagaz. Bakarleri eta bikoteek maila bat osatuko dute, eta taldeek beste bat. Maila bakoitzean, abesti originalik onenak 600 euro jasoko ditu, eta bertsio onenak, 500. Horrez gainera, publikoaren ustez onena denak 500 euro irabaziko ditu.

Otsailaren 23ra arte eman ahalko da izena, Andragunean eta [m8lehiaketa@gmail.com](mailto:m8lehiaketa@gmail.com) helbidean. Pilar Rios alkateordeak esan du gazteak indarkeria matxistaren aurka inplikatzeko dela helburu nagusia.



## Vanessa Fernandezek irabazi du JAED elkartearen zozketa solidarioko autoa

### DURANGO • M.O.

Vanessa Fernandez iurretarrak irabazi du JAEDen zozketa solidarioko autoa. Astelehenean jaso zituen giltzak, Iurretako Citroen-Zaer Motor kontzesionarioan. Pozik agertu zen giltzak emateko ekitaldian. "Urtero parte hartzen dut zozketan, Durangaldeko herritarren gehiengoak bezala", esan du Zinebi zine jaialdiko zuzendaria denak.

Izan ere, Fernandezek eta beste milaka lagunek JAED elkartearen ekinbide solidarioa lagundu dute, 60.000 txartel erosita. Urtean zehar 400 bat familiari ematen die laguntza JAEDek, jatekoa emanez eta bestelako beharrianetan lagunduz.

# “Emakumeok bizi dugun egoera ikusita, beharrezkoa zen Dominika sortzea”

Abenduaren 14an Dominika talde feminista jaio zen Zaldibarren, bertako emakumeak bildu eta beharriaz erantzuteko



Nerea Egiarte, Nerea Urizar eta Mirian Sanchez.

## ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

**Hiru belaunaldik bat egin dute Dominika talde feministaren sorreran. Martxoaren 8ko greba buru-belarri prestatzen ari dira.**

### Nondik sortu da taldea?

**Nerea Urizar:** 2017ko jaiei begira, mugimendu feminista erasoan aurkako protokolo bat lantzen hasi zen. Neska talde bat bildu zen horren inguruan, baita martxoak

8ko 'Emakumeak Planto!' greba deialdiaren inguruan eta jaietako brigada feministaren bueltan ere. Irailean, bilera bat egin zen, eta talde feminista baten beharra zegoela ikusi zen. Taldea aurkeztu eta, astiro-astiro, lanean gabiltza ordutik.

### Beharra, zertarako?

**Nerea Egiarte:** Azken hilabeteetan, ia astero egin ditugu kontzentrazioak, izenik eduki ez arren. Emakumeok gaur egun bizi dugun

egoera ikusita, beharrezkoa da.

**Mirian Sanchez:** Zenbait alorretan zapalduta gaude oraindik emakumeak, eta horri aurre egiteko sortu dugu Dominika.

**N.U.:** Baita gu trebatzeko ere. Azkenean, ikusten dugu arlo horretan formakuntza bat behar dugula.

**N.E.:** Geure artean egiten hasiko gara. Udalak orain artean aukera eman du, ahalduntzeko ikastaroak eskainiz, adibidez. Hemendik au-

rrera, guk ere eskainiko ditugu.

**M.S.:** Batez ere, geure artean eztabaida sortzea gura dugu, talde eta pertsona moduan hazteko. Zaldibarko emakume guztientzat dago zabalik.

**N.E.:** Azken finean, heteropatriarkatuak indar handia dauka eta guk asko dugu lantzeko.

**Zenbait belaunaldi batu zarete erantzun hau antolatzeko. Zer hausnartu ematen du.**

**N.E.:** Egia esateko, niri hasieran lotsa apur bat eman zidan etortzeak, adinagatik. Baina, orain, guztiontzat aberatsagoa dela ikusten dut. Gazteek irudimen gehiago dutela ikusten dut. Guk, ostera, esperientzia dugu.

**M.S.:** Hori da. Adin tarte bakoitzeko kideek euren ekarpena egiten dute taldean.

**N.U.:** Belaunaldi bakoitzak bere modura sufritu du matxismoa. baina, azken finean, guztiok jasan dugu zapalkuntza emakume izatearren, modu batera edo bestera.

### Zenbat emakumek osatzen duzue Dominika?

**M.S.:** Hamabostean behin, hamabost bat emakume biltzen gara. Zenbait lantalde ditugu. Talde pro-

“**Belaunaldi bakoitzak bere modura sufritu du matxismoa, baina, azken finean, zapalkuntza emakume izatearren jasan dugu**”

tokoloa sortzen ari gara, adibidez. **Martxoak 8ko greba antolatzen hasi zarete?**

**N.U.:** Bai, hasi gara lantzen. Aurten 24 orduko plantoa egingo da. Iaz, emakume piloak irten ginen kalera, eta aurten ere jende asko irtetea espero dugu. Erronka handia dugu. **N.E.:** Iaz antolatu genituen ekimenak, jaietako brigada feministak esaterako, arrakastatsuak izan ziren, eta horregatik erabaki genuen urtean zehar lanean jarraitzea.

### Nondik dator Dominika izena?

**N.U.:** 70eko hamarkadan Zaldibarren bizi zen emakume bat zen. Zegoen legediari aurre eginez, abortua praktikatzeko zuten. Emakumeen eskubideen aldeko sekulako lana egin zuten, eta berari omenaldi txiki moduan aukeratu dugu.



Jasone Agirre eta Mikel Urrutia joan zen asteko aurkezpenean.

## Abadiñoko EH Bilduk ekitaldia egin du Mikel Urrutiaren hautagaitza aurkezteko

Jasone Agirre legebiltzarkideak ere parte hartu zuen Txanporta kultur etxean antolatutako ekitaldian

### ABADIÑO • A.M.

Maiatzeko udal hauteskundeetara begira lanean jarri dira alderdi politikoak. Horrela, Abadiñoko EH Bilduk ekitaldia egin zuen zapatuan, Txanporta kultur etxean, Mikel Urrutiaren hautagaitza aurkezteko. Abadiñorako dituen proposamen sorta eta inbertsio estrategikoak zeintzuk izango diren aurkeztu zuen bertan. "Zerga

sistema duina, justua eta progresiboa aplikatuko dugu, herritarrek ito barik abadiñarren beharriaz asetuko dituen", azaldu zuen alkategaiak ekitaldian. Turismo jasangarria garatzeko programa ere aurkeztu zuen.

Urrutia EH Bilduko zinegotzia da legegintzaldi honetan, alderdiaren bozeramailea, hain zuzen ere.

## 28 abadiñarrek diru-laguntza jasoko dute euskara eskolak hartzeagatik

### ABADIÑO • A.M.

Diru-laguntza 6.460 eurokoa da. 2017-2018 ikasturtean euskara eskolak hartzeagatik jaso dute laguntza herritar hauek. Klaseen %80a joan izana eta Abadiñon errolaturik egotea ziren betebeharreko baldintzak. Argi Abad Hezkuntza eta Euskara arloko zinegotziaren berbetan, euskara ikastea sustatzeko neurria datozen urteetan ere mantenduko da. Eskerak irailean bete ziren, eta aste honetan dira laguntza jasotzekoak.

## Gutxienez 15 igel gorrik erabili dituzte anfibioen putzuak arrautzak jartzeko

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

Anfibioen ugalketa errazteko orain urte eta erdi Mekoletan egin zituzten urmaelak "momentuz arraskatatsuak" izaten ari dira. Horrelaxe adierazi

**Hainbat anfibio espeziek erabili dituzte urmaelak, eta proiektuko sustatzaileak pozik daude**

du Sergio Gallegok, proiektua garatu duten Ambientalia 21 erakundeko kideak. Hainbat anfibio espeziek erabili dituzte. Esaterako, gutxienez 15 igel gorrik erabili dute, euren arrautzak jartzeko.

## 650 euro lortu dituzte Garaiko San Anton eguneko enkantean

**GARAI • M.O.**

Ohiturazko Erremata egin zuten joan zen egunean garaitarrek, San Anton egunez. Meza-oren ostean, baserritarrek eramandako produktuen enkantea egin zuten: ortuariak, edariak, pastelak... Nobedade lez, aurretik ez da egon animaliarik bizirik.

Jai giroan burututako enkantean 650 euro batu zituzten. Zati bat elizako gastuetarako izango da, eta gainerakoa Caritasi emango diote.

## Euskara azterketa egindakoan eratuko dute aguazilen lan poltsa berria

**IZURTZA • J.D.**

Aguazil lanetarako lan poltsa eratzeko prozesua azken txanpan sartuta dago. Orain arte, azterketa bi egin dituzte aurkeztutako hautagaien artean, eta ariketa bi horietako emaitzak Izurtzako Udaleko webgunean daude ikusgai. Otsailean, PL1 euskara maila ez duten hautagaiak euskara azterketa egingo diete, eta horregaz amaituko da prozesua. Hautagaiak ateratako puntuazioekin osatuko dute lan poltsa.

# Kristau Eskolako ikastetxeetako zuzendariek zentroen eta langileen baldintzak hobetzea aldarrikatu dute

Ikasleen gurasoek kezka adierazi dute, eta gaur negoziazioa eskatuko dute Ezkurdin deitutako elkarretaratze batez

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**

Kristau Eskolako ikastetxeetako beharginak zortzi eguneko greba edo protestan ari dira, hitzarmen kolektiboaren harira sortu den gatazkaren aurrean. Eta, konponbide bati begira, ikastetxeek eta bertako gurasoek negoziazioa eskatu dute.

Neverseko Julen Rojo, San Antonioko Oier Urigoitia, Jesuitetako Eva Rodriguez eta Maristetako Daniel Irazola zuzendariek prentsaren aurrera agertu ziren atzo, ikastetxeen eta langileen "lan eta ekonomia baldintzak hobetzea" aldarrikatzeko. Eusko Jaurlaritzak "konpromisoa" hartu behar duela diote. "Eskaintzen ditugun zerbitzuei modu egokian erantzun ahal izateko, ekitatezko finantziarioa eta kontzertazio egokia beharrezkoak dira", adierazi dute. Jaurlaritzaren, patronalaren eta sindikatuen artean elkarrizketarako mahai bat sortzea proposatu dute.

Kristau Eskola sareko Durango-ko ikastetxe guztiak batuta, 3.000 ikasle eta 300 bat langile hartzen dituzte. Zuzendarien esanetan,



Ezkerretik hasita, Irazola (Maristak), Rojo (Nevers), Rodriguez (Jesuitak) eta Urigoitia (San Antonio).

**Sareko Durangoko ikastetxe guztiak batuta, 3.000 ikasle eta 300 bat langile hartzen dituzte**

grebaren eragina hurrengoan izan da: Neversen langileen %65ek hiru egunetan egin dute greba; San Antonion ez dute greba egin; Jesuitetan atzo DBHn izan zen greba, eta gaur eremu osoan; eta Maristetan %60k bat egin du grebagaz.

Gurasoek kezka adierazi dute sortu den egoeratik, eta gaur elkarretaratzea egingo dute, 19:30ean, Ezkurdin. Bertan negoziazioa eskatuko dute, eta euren seme-alabak "jasaten ari diren ondorioak azalerratu" ere bai.

# Etterik ez dutenentzako gaueko aterpe zerbitzuaren balorazio ona egin du Amankomunazgoak

Neguan, hamar pertsonarentzat egoten da lekua gaua pasatzeko, eta urtean zehar bost pertsonarentzat; lo egiteko aukeraz gainera, afaria eta dutxa eskaintzen dizkiete

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**

Orain zenbait urtetik hona, etterik ez dutenentzako gaueko aterpe zerbitzua eskaintzen du Amankomunazgoak. Hasieran, negurako zen bakarrik, azaro amaieratik martxora bitartekoa gutxi gorabehera. Baina, iaz, zerbitzua urte osora hedatu zuten, hainbat instituzio-gaz elkarlanean. Urtebete pasatuta,

zerbitzuaren balorazio ona egin du Aitor Lopez presidenteak.

Etterik ez dutenei gauetan lo egiteko lekua ematen die zerbitzuak, baita afaria eta dutxa ere. Neguan hamar pertsonarentzat egoten da lekua, eta urtean zehar bostentzat. Lopezen esanetan, kalkulua ondo egin zutela baloratu dute, zerbitzuaren datuak ikusita.

Tabirako Errota ostatuan eskaini izan dute zerbitzua, bertako gela batzuk alokatuta.

**2019rako egitasmoetan**

Amankomunazgoak 2019rako aurrekontua onartu zuen abenduko osoko bilkuran, eta gaueko harrera zerbitzuagaz urte osoan jarraitzea izango da egitasmoetako bat. EH

Bildugaz batera gobernuan dagoen Herriaren Eskubideak babestu zuen aurrekontua. "Aurrekontua aurrera eramane den modua esker-tu gura dugu", adierazi dute.

**Amankomunazgoak 2019rako aurrekontua onartu zuen abenduko osoko bilkuran**

**Egungo gestioa aurretiaz EAJk egindakoaren "jarraipena" dela uste du Goiztidi Diazek**



EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak egin zuten aurrekontuen alde. EAJk eta Alk aurka bozkatu zuten.

Ez du sentsazio bera EAJk. Goiztidi Diazek salatu zuen ez dela parte-hartze prozesurik egon. Iragarrita zegoen airearen kalitatearen inguruko ikerketa ez dela egin eta egungo gestioa aurretiaz EAJk egindakoaren "jarraipena" dela uste du. Lopezek aitortu zuen ez dela airearen ikerketa egin, baina 2019an egitea espero dutela esan zuen. Bere ustez, eman dira pauso berriak, eta EAJk aurrekontu prozesuan "ekarpenik ez egitea" salatu zuen.



# ATEAK ZABALIK

Urtarrilak 26, zapatua

Haur Hezkuntza: 10:00etan

Lehen Hezkuntza 11:00etan

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 12:00etan



KURUTZIAGA  
KASTOLA

BIZITZEKO HEZI

## GURE HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ikaslea ardatz

Euskara eta Euskal kultura

Eleaniztasuna

Genero berdintasuna

Aniztasuna

Natura



[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)

# GAZTAÑERRE

Urtarrilak 26  
Plateruenean

16:30ean  
PUZGARRIAK  
eta TAILERRAK:  
karetak, aurpegia  
margotzea...

18:00etan  
IRRIEN LAGUNAK



19:00etan  
PUZGARRIAK  
eta TAILERRAK  
TALO TAILERRAK  
GAZTAINAK...





Ricardo Doliwa

## Hareek denporak!

# Andra Mariko plaza, elurragaz zuri-zuri eginda

Euri zaparradek negu gorrian sartu gabela erakusten duten egun hauetan, gure inguruko mendietan elur malutak jausi dira, nahiz eta lainoek, sarritan, hori ikusteko trabak ipini. Oraindik behelaldean ez dugu elurrik ikusi, baina batek daki zelako negua edukiko dugun aurretik. Iaz, esaterako, aspaldi ez bezala zurutu zuen Durangaldean otsailaren 28an; akordatzekoa izan zen. Kaleak elurtuta

zeudela itzartu, eta errepideak kolapsatu egin ziren.

Atzera begira, Ricardo Doliwak elurte batean Durangon ateratako argazki eder hau dakargu argitara. Aurreko mendeko erdialdekoa da; Jose Mari Uriarte historialariaren esanetan, 1955eko martxoan egindakoa, seguruenik. Andra Mariko plaza zuri-zuri dagoela, astoekin produktua garraiatu dituen andre bat ageri da irudian. **M.O.**

## Politikan

Julian Rios  
Santiago  
SQ2D



### Udal espiritua

Udal eremuak gunerik aproposenak dira benetako demokrazia parte-hartzaile eta zuzen baten prozesua aurrera eramateko. Kanpora begirako demokrazia bat, herritarren proposamen eta eskaerak islatzen dituena eta hauteskundeetako programak betetzen dituena, baina zintzotasunik eta benetako konpromisotik, eta ez orain arteko marketing politikotik eta hauteskundeen aurreko eroalditik. Bestalde, barrura begirako demokrazia bat, kandidateuren egitura prozesu demokratiko, garden eta irekien bidez ahalbidetzen duena eta udalaren erabakitze esparruak errespetatzen dituena, inongo injerentziarik barik.

Udal ordezkari moduan, kalean egoteko derrigorra dugu, eta gure kaleen errealitatea bertatik bertara ezagutu beharra daukagu. Instituzioetako pulpitutik gobernatzeak errealitatetik urruntzen gaitu, eta, horrela, herritarren beharrezan ikuspegi galduko dugu.

Politika zaharraren ondorioz, alderdi politikoak interes-talde eta kolokazio-agentzia bihurtu ziren, eta, kasu batzuetan, baita multinazional ere. Espiritu horrekin, deslokalizatu egin dituzte erabaki-hartzeak. Hau da, Durangoren beharrezanetarako erabakiak ez dira jada hemen hartzen, herritarren interesekin zerikusirik ez duten beste leku batzuetan baizik. Horrek, esaterako, nabarmen uzten du "trilerismo politikoaren" praktika trenaren lursailen etorkizunari dagokionez. Ez da kontuan hartzen herritarrek nahi dutena, lursail horiek negozioa egin gura dutenen interesa baizik.

Ea behingoz udal espiritua gailentzen den Durangon, eta ez inposizioaren espiritua. Benetako parte-hartzea behar dugu, Durangoren eta durangarren interes orokorra lehenesten duena beti.

*\*Erredakzioan itzulia*

## Durangaldea asteen

### Durangoko Udalak 102.000 euro inbertituko ditu Aramotzen jolas parkea egiteko

**Durango** Udalak eta Herria auzo elkarteak batzarra egin dute, asteen, jolasguneari buruz berba egiteko. Bertan, proposamen bi eskaini zituen instituzioak, eta Herriari bien artean aukeratzeko eskatu dio. Proposatutako eredu batek tirolina bat du ardatz, eta besteak jolas konbinatu handi bat. Edozein eratan, bata zein bestea aukeratu, udalak 102.000 euro gorde ditu parkerako.

### Alokairuan bizi diren gazte durangarrek diru-laguntza eskatu ahal dute

**Durango** "Gazteen emantzipazio prozesuan laguntzeko" asmoz, 65.000 euroko diru partida gorde du udalak. Diru-laguntza eskatu gura dutenek urtarrilaren 30era arte izango dute aukera, [www.durango.eus/dirulaguntzak](http://www.durango.eus/dirulaguntzak) webgunean.

Bestalde, etxebizitza eskubidearen gaia jorratzen duen Zabalduko Ditugu taldearen arabera, 2008an 75.000 euro eman zituzten gazteen alokairurako, eta hori murriztu izana kritikatu dute.

### Zornotzako ludoteka eta gazte txokoa ezagutu ditu Herriaren Eskubideak

**Zornotza** Herriaren Eskubideako ordezkariak beste herri batzuetako instalazioak bisitatzeko hasi dira, informazio hori jasota, gero Durangon proposamen bat egiteko.

Joan zen asteen ludoteka eta gazte txokoa bisitatu zituzten Zornotzako Zelaieta zentroan. "Oso beharrezkoak diren zerbitzuak dira, gaur egun Durangon ez daudenak", ohartarazi dute alderdikoek prentsa oharrean.

## Iritzia

### Andereño Milaren ikasle ohiei esker onez

Guretzat ama, amona zen; zuentzat andereño Mila. Eta ez dakizue zein harro gauden andereño Milaren seme-alaba edota senarra izateaz. Bihotzez eskerrak momentu latz hauetan aldamenean izan zaituztegun andereño Milaren ikasle ohiei eta haien gurasoei. Zer esanik ez Iurretako familiari, horixe baitzarete guretzat, familia.

Hurrengo San Migeletan, Donien Atxa jasotzean, ziur andereño Mila Abadetxe inguruan gure aldamenean sentituko dugula.

*Anartz eta Uxue Agirre Madariaga, Fernando Agirre Zubiate*

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**ALDEKOA-OTALORA** iturgintza  
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA  
info@aldekoaotalora.com - 692 859 779  
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

**urtxintxa**  
jostailu denda  
Jolasten ikastea errazagoa delako  
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Bulegorako  
zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

# INGURUMEN GEHIGARRIA



ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI  
BIODEGRADAGARRI  
ETA BIRZIKLAGARRIAK



[www.soul-cemosa.es](http://www.soul-cemosa.es)



## cemosa

GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.L.

Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)  
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99



# Euskaldunak, ingurumenak gehien arduratzen dituen europarren artean

Berdeago, Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azoka, ardura horiek jorrazeko lanean ari da 2019ko azokan

Euskadik du ingurumenarekiko ardura tasarik altuenetarikoa. Horrela erakusten du Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako 'Biztanleriaren jarrera ingurumenarekiko' 2017ko ikerketak, non elkarrizketatuen %100ek ingurumenaren babesari garrantzi handia ematen diotela azaltzen duen. Suedia eta Europar Batasuneko beste herrialdeetako erantzunen mailan egon da.

Hori dela-eta, Berdeagok, Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azokak, eta halako jardunaldiek urterik urte duten arrakasta ulergarria da. Iaz 16.000 bisitari baino gehiago bildu zituelarik, 2019rako Berdeagoren aurreikuspena handitu egin da, erakargarria egiten zaion dena jaso dezan ikusleak.

Ikerketa honegaz jarraituz, txostenak dio, etxebizitza erosterakoan energiaren sailkapenari garrantzi handia ematen diotela herritarren erdiek. %53k, bestalde, autoak zenbat kutsatzen duen du ardura nagusia modeloa aukeratzekoan.

Kotxeen eta beste garraio moten kutsadura Euskadiko ingurumen arazorik garrantzitsuenetakoa da. Hala ere, kezka handia dago, izan ere inkestatuek aitortu dute ezjakintasun handia dagoela zenbait baliabide naturalen agortzeari buruz, petrolioarena eta gasarena kasu.

## Berdeago Energy

Ildo horretan, Berdeago Energy, efizientzia energetikoaren Euskal azoka, lagungarri izango da efizientzia energetikoa, mugikortasun jasangarria eta ingurumen berrikuntzari buruzko produktu eta azken berriak ezagutarazteko. Profesionalentzat bisita perfektua da, baina baita erabiltzaile eta azken kontsumitzaileentzat ere, etxebizitzetan aurrezpen energetikoa suposatzen duen aldaketarik egiteko prest dauden horientzat; adibidez, biomasa galdara baten instalakuntza edo isolamendu termikoa. Hitzordua Durangoko Landako Gunean izango da, otsailaren 1ean, barikua, 10:30etik 20:30era;

2an, zapatua, 10:00etatik 20:00etara eta 3an, domeka, 10:00etatik 20:00etara. Sarrera doan da.

## Berdeago Nature

Bestalde, herritarren %59k Eusko Jaurlaritzako ikerketan aitortu zuten produktu lokalak eta gertukoak erosteko ohitura dutela. Jende horren erdiek produktu ekologikoak erosten dituzte noizbehinka, 2013. urtearekiko datua 3 puntutan igotzen delarik.

Joera hauek ikusita, Berdeago Naturek, ekologia eta kontsumo arduratsuen azokak, ingurugiro irankortasunaren inguruko elikadura ekologikoa eta km0, ekonomia soziala, ongizatea eta gizarte ekintza sektoreetako profesionalak bilduko ditu, besteak beste. Elikadura ekologikoan, baratzeko produktuetan edo hirugarren sektore sozialean interesaturik daudenek Durangoko Landako Gunean otsailaren 9an eta 10ean aukera paregabea aurkituko dute kalitatezko produktuak eskuratu eta kontsu-

mo arduratsua eta jasangarriago bat egiteko. Artikulu hauen zaleak zapatuan 10:00etatik 21:00etara etorri ahal izango dira, eta 10ean 10:00etatik 20:30era. Sarrera doan izango da.

Azkenik, txostenean Euskadiko herrien ingurumen arazo garrantzitsuenen ranking bat agertzen zen, gehiegizko hondakinak %10ekin azaltzen zirelarik, kutsadura orokorra %12rekin eta autoen eta bestelako garraio bideen kutsadura %20rekin. Inkestatuen iritziz, uraren kutsadura izan beharko litzateke gure ardurarik garrantzitsuen, eta airearena eta aldaketa klimatikoarena gero.

Berdeago azokan, foodtrack, moda desfilea, showcookingak, dastaketak, yoga, zinea eta ludotekaz aparte, hitzaldi interesgarriak aurkituko ditugu jendearen informazioa eguneratzeko. Ikusmin handia pizten duten jardunaldi hauek gure planeta leku iraunkorrago bat sustatzeko helburua izango dute.

# energy

otsailak 1,2,3  
2019

Eraginkortasun energetikoa  
Mugikortasun jasangarria  
Ingurumen berrikuntzak

Sarrera Dohainik



berdeago

# azoka

Landako Gunea, Durango  
[www.berdeago.com](http://www.berdeago.com)

# nature

otsailak 9,10  
2019

Elikadura ekologikoa eta km0  
Ekonomia soziala  
Osasuna eta ongizatea  
Ekintza sozialak

antolatzailea



babesleak



# Etxean energia aurrezten: norbere kabuz eman ahal diren pausoak

Energia kontsumoa bajatuta, ingurumena hobetuko da eta ekonomikoki errentagarriagoa izango da



Bero sisteman igotzen den gradu bakoitzeko, kontsumoak %7 egiten du gora.

## ENERGIA • MARKEL ONAINDIA

Norberak bere etxean pauso batzuk eman ahal ditu energia murrizteko eta, era horretan, ingurumena eta poltsikoak eskertuko dute. Berdeago Energy azokan, etxerako aparatu eta sistema jasangarriagoak ezagutu ahal dira. Gainera, informazioa eta aholkuak emango dituzte berbaldien bidez.

Esaterako, eraikuntzan eraginkortasun energetikoa lortzeko irizpideak eskainiko ditu Energiaren Euskal Erakundeak (EVE), otsailaren 1ean. Eguneroan ere hainbat pauso eman ahal dira energia aurrezteko. Hona hemen EVEk jasotako batzuk.

### Etxebizitzaren isolamendua

Etxea erostean edo berriztean, kontuan izan diseinu on bategaz %70eraino aurreztu ahal dela. Beira bikoitza duten leihoak ipini.

### Bero sistemak

Termostatoa 20 °C-ko tenperaturan ipintzea da egokiena. Adi, ze, igotzen den gradu bakoitzeko, kontsumoak %7 egiten du gora. Gauez, sistema amataztea edo 17 eta 19 gradu artera bajatzea komeni da. Gela batzuetako erradiadoreetan balbula termostatikoak erabilia, %5 eta %10 artean aurreztu daiteke.

Ur beroaren kasuan, eguzki-energia termikoren sistemagaz %60eraino lortu ahal da energiaren kontsumoa gutxitzea.

### Argia

LED teknologiadun argiek gehiago irauten dute eta %90 gutxiago kontsumitzen dute.

### Sukaldea

Indukzio plakek %45erainoko energia aurrezten dute, bitrozeramikekin alderatuta. Labearen ordeztu mikrouhin-labea erabilia, %60 aurrezten da.

### Telebista

Telebista amatatzean, deskonexio botoia sakatzea komeni da. Horrela, %15 murriztuko da kontsumoa.

### Garbigailua

Arropa lehertzeko, hobe da garbigailuko zentrifugazioa erabiltzea lehorgailua baino.

**D3**  
arquitectos



Elkartegia. Landako 4. Durango  
T. 94 681 23 11  
info@d3arquitectos.com

www.d3arquitectos.com

Durango kokatutako arkitektura bulegoa, irisgarritasun eta energia-eraginkortasun irizpideak erabiliz eraikinen erosotasuna hobetzeko berriztatze eta birgaikuntzan adituak.

Emaitza hobereana lortzeko helburuarekin obra garapen osoan aholkatuz auzo komunitate eta partikularrekin lan zuzena.

Esperientzia zabala:

- Eraikin osoen birgaitzea.
- Fatxada zein teilatu energia birgaitzeak.
- Igogailu instalakuntzak zein irisgarritasun hobekuntzak.
- Txosten teknikoak (ITEak, EZEak, peritazioak...).
- Diru-laguntzak zein lizentzia tramitazioak.

Konpromisorik gabe kontsultatu.



**MANTENTZE-LANAK KOMUNITATEETAN**  
**SATE** (Kanpoko isolamendu termikoaren sistema)  
**ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA**  
**FATXADA AIREZTATUAK**  
**TEILATUAK**

646 35 31 99 info@ametsa.es DURANGO

# EROSKI, bioaniztasunaren eta ingurumenaren alde

Gaur egun EROSKIren nortasun ezaugarrietako bat da elikadura iraunkorragoa sustatzea, eta hori Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak dituen konpromisoetako bat da. Konpromiso hori gauzatzeko, kooperatibak askotariko ekimenak lantzen ditu; besteren artean: kosmetika naturalaren sail berria, arrantza iraunkorraren alde zigilu bidez hartu duen konpromisoa, erabilera bakarrek plastikozko poltsen alternatiba berriak, eta logistika iraunkorraren bidean egin dituen aurrerapenak.

## Edertasun iraunkorra

EROSKIk COSMOS Natural kosmetika ziurtagiridunaren lehen saila atera zuen merkatura orain hilabete gutxi batzuk. Sail berri hori ECOCERT nazioarteko erakunde ospetsuak homologatzen du, eta hamasei produktuz osatuta dago. Horien bidez, eguneroko higienezaren eta edertasunaren oinarritzko beharrak estaltzen ditu. Araudi horrek, besteren artean, honako alderdi hauek erregulatzen ditu: osagaia, ekoizpena, bilkaria, etiketa eta ingurumen kudeaketa. Sail berriak bere osoan lortu du osagaien %98 naturalak edo jatorri naturalekoak direla bermatzen duen ziurtagiria; belle NATURAL produktuen %5, berriz, ekologikoa da.

## Iraunkortasunaren alorreko ziurtagiriak arrandegian

EROSKIk ingurumen bermeak erantsi dizkio bere eskaintzari, eta itsasoko baliabideen iraunkortasunarekin arduratsuak diren hornitzaileekin dihardu. Kooperatiba aitzindaria da Espainian arrain freskoa MSC eta GGN (GLOBALG.A.P NUMBER) erakundeen estandarren arabera merkaturatzen; konpromiso hori funtsezko laguntza da iraunkortasunaren alde diharduen arrantza sektorearentzat. Horren ondorioz, iaz bikoiztu egin zuen MSC eta GlobalG.A.P Number ziurtagiriek merkaturatzen duen arrain iraunkorraren kopurua, 2.536 tonak gainditzeraino. Arrain hori EROSKI Natur freskoen markarekin saltzen du.

## Betiko plastikozko poltsen alternatiba berriak

Erosketa arduratsua egiten laguntzeko, beste ekimen bat jarria du martxan kooperatibak: paperezko poltsa berria, erabilera bakarrek plastikozkoaren alternatiba gisa; aukera iraunkorragoa da, eta ingurumena babesteko EROSKIk hartu dituen konpromisoetan sartzen da. Poltsa berriak dagoeneko hipermerkatuetan daude, eta sare komertzial osora zabalduko dira. Paperezkoak dira, eta FSC® zigilua izango dute (Forest Stewardship Council); horren bitartez, ziurtatzen da paperaren zuntza modu arduratsuan kudeaturiko basoetatik

datorrela edo material birziklatua duela eta erabat birziklagarria dela. Paperezko poltsa berriaz kanpo, EROSKIk gero eta soluzio gehiago eta gero eta askotarikoagoak eman go ditu erosketa mota guztietara egokitzeko eta ohiko plastikozko poltsak ordezkatzeko. Gauzak horrela, datorren asteetan poltsa konpostagarria aterako du, landare jatorriko material berriztagarri egina, eta zabor organikoaren poltsa gisara ere erabili ahalko da. Plastikozko poltsa berrerabilgarri bat ere eskainiko du, erabat birziklatu ahalko dena eta %55 behintzat plastikozko birziklatuz egina egongo dena. Poltsa berri horietaz gain, hori lehenik ere, batetik, errafiazko berrerabilgarria, plastikozko birziklatuz egina, eta, bestetik, ehunez egindako elkartasun poltsa berrerabilgarria, dagoeneko eskura bere dendetan.

## Berritzailea logistika iraunkorraren alorrean

EROSKIk konpromisoa hartua du, orobat, ingurumenean duen eragina minimizatzeko bere ingurunean, nola eta prozesuak, instalazioak eta produktuak hobetuta. Kooperatibak orain gutxi irabazi zuen LEAN&GREEN saria, Ekoizleen eta Banatzaileen Elkarteak (AECOC) emana, bere jardura logistikokoetan CO<sub>2</sub> gutxiago igortzeko. Ziurtagiri horrekin, EROSKI Taldea liderra izango da LEAN&GREEN plataforman, kontsumoaren sektoreko beste hamabost enpresarekin. LEAN&GREEN proiektuaren helburua da konpainia liderren sare bat eratzea iraunkortasun logistikaren alorrean, aurrezpen gaitasuna handitzeko eta CO<sub>2</sub> emisioak %20 behintzat gutxitzeko 5 urtean. Sari horrekin ziurtatzen dute EROSKIk ekintza plan bat aurkeztu duela ehuneko hori jaisteko 2015etik 2020ra. 2017ra arte landu dituen neurriekin dagoeneko %12,94 gutxitzea lortu du CO<sub>2</sub> emisioak bere jardura logistikokoetan. Lorpen horri esker, EROSKIk lan egiteko modua eta kontrol prozedura sendotu eta gaurkotu ditu; izan ere, ingurumena aintzat hartzen du Osasunaren eta Iraunkortasunaren aldeko Konpromiso berrituak betetzeko orduan.



## Basoetan bertako arbolen aldeko lanean, aniztasuna eta ingurumena zaintzeko ikuspegian

Herri basoetan espezie autoktonoei lekua egiten hasi dira Durangon eta Otxandion



Durangaldea da Bizkaian pinu hektarearik gehien gorriturik duen eskualdea. LEIJOZ ELORRIAGA.

Atxondoko Udala basoak erosten hasi da, herrian "bestelako baso-politika bat" sustatzeko asmoz

### BASOAK • MARKEL ONAINDIA

Gure inguruko basoak eremu garrantzitsuak dira ingurumena zaintzeko. CO2a finkatzen dute, airearen kalitatea hobetu, biodibertsitatea handitu, klima aldaketa moteldu, animalia eta landareentzako habitata sortu.... Azkenaldian kezka zabaldu da basoen egoeraren inguruan, pinuek sufritzen duten gaixotasunaren erruz. Esaterako, Durangaldean 13.192 hektarea hartzen dituzte pinudiek, eta horietako 4.380 hektareakoak gaixorik daude, gorriturik. Euskal Herrian eztabaida handia piztu da basoen kudeaketari buruz.

Basoen geroak arduratuta, zenbait udal neurriak hartzen hasi dira. Durangoren kasuan, 2015etik "ikuspegi aitzindari" bategaz lanean dabiltza udala eta Aldundia, herriko sei mendi publikoetan. Pinuen %25 mozten dute bakarrik, lur horretan bertako arbolak birsortzen utziz, gainerako pinuen babespean. Baso aprobetxamendutik datorren dirua murrizten dela onartuta, ekosistema eta bertako espezieak indartzean ikusten dute abantaila.

Otxandion ere antzerako bide bat garatzen ari dira iaztik udala, Aldundia eta Jaurlaritza. Mekoleta eta Gomilaz artean, udalak jabetzan duen hiru hektareako baso batean kanpoko arbolak kentzen hasi dira, eta autoktonoak landatzen. Haritz amerikarra, alertzea eta koniferoak dira kendutako batzuk, eta elorria, elorri beltza, basoko makatza eta otsalizarra dira sartutako batzuk.

### Lurrak erosten

Bestalde, Atxondoko Udala basoak erosten hasi da, herrian "bestelako baso-politika bat" sustatzeko asmoz. Mañarian ere asmo hori dute, eta beste arrazoi bat gehitu dute: erosleen lehia sortuz lurjabeei laguntzea, salmenta prezioak bajatu egin zaizkielako pinuen gaixotasunak eraginda.

Ez dago  
B planetarik

Zaindu ura,  
eraiki dezagun etorkizuna.

 **Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia  
[www.consorciodeaguas.eus](http://www.consorciodeaguas.eus)



# "Esperientzia ona izaten ari da Esnetik kooperatibakoa"

Esnetik kooperatibak bidea urratu gura du elikagai subiranotasunean; Durangaldeko artzain familia bi kideak dira



ABELTZAINZA • ARITZ MALDONADO

Larrabe baserrian gazterik hasi zen beharrea Omar Costas Uriarte (Zornotza, 1952). Gurasoek behiak gurago zituzten arren, ardiekin lan egitea izan du gustuko beti. Orain urte batzuk langabezia geratu ostean, ardiekin lanean dabil buru-belarri. Esnetik kooperatibako kidea da egun. Berdeago Naturen egongo dira proiektua azaltzen.

## Noiz sartu zinen Esnetik kooperatiban?

Orain sei bat urte. Ahoz ahokoaren bidez enteratu nintzen, eta Javier Aldekoagaz bildu nintzen, besteak beste.

## Nola funtzionatzen du?

Nik euren bidez saltzen dut esnea. Niri ondo joan zait. Gainera, Javier oso jatorra da, eta arduratsua. Oraindik behintzat ondo gabilta, esperientzia ona izaten ari da.

## Zenbat ardi dituzu?

240-250 ardi ditut, 6-8 aharito eta 55-60 gazte inguru. Lehenbizi, artaldea hazten aritu naiz, eta, horren ostean, ekoizpena zaintzen. Produktzioa urtearen arabera da. Aldea dago. Ondo bidean, klima ona badago, 25.000-28.000 litro inguru bildu ditzaket, gutxi gorabehera. Badago gehiago batzen duen jendea, noski. Ahal dudana egiten dut. Orain urte bikoia oso urte ona izan zen. Iazkoa, oster, ez. Azaroaren 30ean negua zen, belardiak elurtuta zeuden eta ardiek ez zuten non jan. Eta horrek eragina du, noski. Egunean litro bi ematen baditu, bikaina da.

**Bestelako kontsumo modu bat bultzatu gura du Esnetik kooperatibak. Lau familiek ematen diote esnea, eta horietako bi Zornotzakoak dira**

## Energiaren Bidea

Euskal Energia Trantsizioa  
Transición Energética Vasca

## Udalak Trantsizio Energetikoarekin bat

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

Euskadi, auzolana, bien común  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# GR-229 Mikeldi, 86 kilometrotan eskualdeko historia barneratzen duen zeru zabaleko museoa

Ibilbideak Durangaldea inguratzen du, 2005etik dago homologatuta eta bost etapatan banatu ohi da

## EGITARAUA • JOSEBA DERTEANO

Durangaldea inguratzen duen GR-229 Mikeldi ibilbideak hamaika altxor gordetzen ditu bere 86 kilometroetan. Sarrerarik kobratzen ez duen zeru zabaleko museoa da, mendiko bizikletan zein mendiko botak jantzita eta bizkarrean ondo hornitutako motxila hartuta egin beharrekoa. Baina museoa zabalik mantenduko bada, etengabeko mantenu lana eskatzen du. Ildo horretatik, Urkiola Landa Garapenerako Alkartek lehiaketara atera du, beste behin, ibilbidea mantentzeko urtebeterako esleipena.

“Ibilbidea garbi mantentzea, seinaleak margoitzea eta seinale bertikalen egoeraren berri ematea

izango dira zereginetako batzuk”, azaldu du Juan Mari Totorikak, Urkiola Landa Garapenerako arduradunak.

## Bost etapatan egitekoa

Ibilbidea 2005etik homologatuta dago eta bost etapatan banatu ohi da. Bidean dorretxeak, 100 urte baino gehiago duten baserriak, ermita historikoak, errota zaharrak eta askotariko burdinolak aurkituko ditu ibiltariak; baita naturagaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen duten paisaiak ere: Urkiolako Parke Naturala bere biodibertsitate aberatsagaz, Oiz eta Anboto mendien magalak...

**Bidean 100 urte baino gehiagoko baserriak, ermita historikoak eta askotariko paisaiak ikusteko eta gozatzeko aukera izango du ibiltariak**

Durangoko Tabiran hasi eta Atxondon amaitzen da lehenengo etapa, Izurtza eta Mañaria zeharkatu, Urkiolara heldu aurretik Atxartera jaitsi eta Axpetik zein Arrazolatik igarota. Izurtzako Etxaburu dorretxea eta Abadiñon Larringango haize-errota dira ibiltariak bidean aurkituko dituen altxor historikoetako bi.

Bigarren etapa, Atxondotik Berrizera, laburrena da, 8 kilometrokoa, eta Garaira heltzen den hirugarrenagaz lotu daiteke, 25 bat kilometroko ibilbidea osatzeko guztira. Berrizko Berriozabaleta auzoan dagoen estilo neoklasikoko iturria, Zaldibarko Garitaonandia dorretxea... Badago zertaz gozatu ibilbidean.

Laugarren etapa Zornotzara heltzen da. Sasoi batean Durangaldea kostaldeko portuekin lotzen zuen harbidetik zehar izango dira ibilbideko kilometro batzuk. Iurretan Laixiartik ere igaroko da ibiltaria, sasoi batean Iurretako kofradiak batzen ziren zelaitik.

Azken etapak Zornotzatik Durangora eramango du ibiltaria, hasierako puntura, bidean Belatxikieta gaina eta Iurretako Orozketa auzoak igarota. Helmugara heltzen denak ondo irabazita izango du freskagarria Durangoko edozein tabernatan.



Berrizko Berriozabaleta auzoan estilo neoklasikoko iturria.



Larringango haize-errota, Abadiño Mendiola auzoan.

AHOLKULARITZA PROFESIONALA

BERRIKUNTZAK  
DITUGU

AZKEN  
BELAUNALDIKO  
PINTURETAN

PINTURA  
EKOLOGIKOETAN

ORBANEN  
KONTRAKO  
PINTURETAN

ZATOZ GU BISITAZERA  
ETA INFORMATZERA

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO

Tel.: 946 217 911

# JAIAK!

SAN BLAS JAIAK  
2019



*Abadiñoako Udalak San Blas  
jai zorientsuak opa deutsuez*

[www.abadiño.org](http://www.abadiño.org)



**Abadiño**  
Elizateko Udala

**San Blas jaiak 2019****Urtarrilak 31, eguna****20:00** Antzerkia Txanporta Kultur Etxean: Morbus Operandi.**Otsailak 1, barikua****18:00** Disko festa**18:30** San Blas 2019 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketea.**21:00** Bertso afaria Gaztañodi elkartearen Amets Arzallus eta Iker Zubeldiagaz. Txartelak salgai Petite liburudendan, Muntsen eta Abarketeruena jatekian.**22:30** Kontzertua txosnagunean: Ernia, The Riff Truckers eta

Ni Yuta ni Tuya

**Otsailak 2, zapatua****17:00** Herri kirolak txosnagunean: Harriti andra-proba taldearen erakustaldia.**18:30** Sagardo dastaketa Uxarte sagardotegiaren eskutik eta parrilada txosnagunean.**Otsailak 3, domeka (San Blas eguna)**

Ganadua, baserriko tresnak eta makinak, ortuariak, fruta, gaztaia, txakolina, ogia, ezta, artisautza eta landareak. XXVII. Abelburu erakusketa.

**9:00** Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.**11:00** Meza nagusia San Trokaz elizan.**11:00-13:00** BELDUR BARIK GUNEA. Txanporta Plazan. Eraso sexisten kontrako sentsibilizazioa, Berdintasun Arloak antolatuta.**12:00** Bertsolariak Ferialeku plazan: Txaber Altube, Aitor Bizkarra eta Garikoitz Sarriugarte; aurkezlea, Bittor Altube.**12:00** Herri kirolak probalekuan: XIX. Urrezko Aizkolariak txapelketako gizezkoen binakako norgehiagoka: Aitzol Atutxa II eta Julen Alberdi 'Txikia IV', Xabier Orbegozo 'Arria V' eta Jon Rekondoren aurka.

- Urrezko Aizkolariak txapelketako emakumeen banakako norgehiagoka: Irati Astondoa - Xanta Sousa

- Urrezko Harrijasotzaileak txapelketako ekitaldia harri bigaz: Imanol Illarramendi 'Kortaberri'

**14:00** DJ Alus**16:00** DJ Bull**17:00** Erromeria Ferialeku plazan: Lotxo taldea**18:00** Idi probak.**Otsailak 4, astelehena****18:30** Abadiñoako Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko ditu kalerik kale.**21:30** Idi probak.**Otsailak 7, eguna****21:30** Idi probak.**Otsailak 8, barikua****18:00** San Blas 2019 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketea: Txapelketako eskuz binakako finala**21:30** Idi probak.**Otsailak 9, zapatua****11:00-13:30** Umeendako jolastokia Zelaietako frontoian.**16:00-18:00** Umeendako jolastokia Zelaietako frontoian.**18:30-20:00** Diskofesta Zelaietako frontoian: Bihotzen (Totoro Basoa konpainia). Ondoren, txokolatada.**22:00** Idi probak.**Otsailak 10, domeka****16:00** Oliver magoaren ikuskizuna Txanporta Kultur Etxean: Balio magikoak.

Lehen saioa. Gonbidapenak otsailaren 4tik eskuragarri Udal Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota).

**18:00** Idi probak.**18:30** Oliver magoaren ikuskizuna Txanporta Kultur Etxean: Balio magikoak.

Bigarren saioa. Gonbidapenak otsailaren 4tik eskuragarri Udal Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota)

**Otsailak 11, astelehena****17:00** Idi probak.**22:00** Idi probak. Ondoren, sari banaketa.**Otsailak 16, zapatua****10:00** XXXI. Burduntziko bildots txapelketa.

Txakoli dastaketa.

**14:00** Bildots bazkaria probalekuan.**OHARRA**

Martian 1etik martiaren 15era bitartean, San Blas 2019 argazki lehiaketako erakusketa Errota Kultur Etxean.

- ORDUTEGIA: Astegunetan: 09:00-20:00

Larunbatetan: 10:00-14:00



**GURE AMETSA**  
RADIOFREKUENTZIA  
DIDO LASERRA  
ILE-APAINDEGIA

Iturritxo, 2A behea  
ABADIÑO  
(ESTANKO BERRIAREN ONDOAN)

65 urtetik gorakoentzat  
DESKONTUAK

Tel.: 697 313 436



**SOLOA**  
JATETXEA

Ondo pasa jaietan!  
Menu berezia San Blas jaietan

Txanporta, 1 - Abadiño (Bizkaia)  
Tel.: 946 202 504 - 946 200 134  
www.soloajatetxea.com



**elur**  
arraindegia

**ORDUTEGIA**  
Astearte eta ostegunetan:  
9:00 - 13:00 eta 17:00 - 19:00  
Asteazken, ostiral eta larunbatetan:  
9:00 - 14:00

Elur Arraindegia  
Zeletabe, 19 Abadiño 48220 Bizkaia  
T. 94 612 39 50



**GORETTI**  
JANARI-DENDA


Ferialeku, 1 - 48220 ABADIÑO  
946 814 028



**neumáticos**  
**ETXEBARRIA**

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)  
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO  
(Hiper Eroskiren ondoan)  
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622  
www.neumaticosetxebarría.com



# Harriti giza proben emakume talde bizkaitarrak abiatuko ditu San Blas jaiak hurrengo asteburuan

Zapatuko ekitaldien ostean, azoka egun handia izango dute domekan; asteburua izanda, jendetza joatea espero dute antolatzaileek

**JAIK • JONE GUENETXEA**

Otsailaren 3a hitzordu esanguratsua izaten da Abadiñon. San Blas Eguna Euskal Herriko baserrien erakusleho bihurtzen da. Aurten, jaiak asteburuan izanda, ohikoa dena baino jende gehiago joatea aurreikusi dute antolatzaileek.

Azokaren bueltan, beste hainbat ekitaldi ere antolatzen dira. Aurtengo nobedadeetako bat Harriti giza proben emakume taldearen erakustaldia izango da. Otsailaren 2an izango dira probak, 17:00etan, txosnagunean. 19:00etan, berriz, sagardo dastaketa eta parrillada izango dira txosnetan, indarrak berritzeko.

Urteroko ekitaldiek ere ez dute hutsik egingo. Otsailaren 1ean, Amets Arzallus eta Iker Zubeldia bertsolariekin bertso afaria egingo dute Gaztañodi elkarteak. Txartela eskuratu gura duenak ondorengo lekuetan aurkituko ditu: Petite liburu-dendan, Muntzen eta Abarketeruena jatetxean. Bariku gauerako ere, kontzertuak antolatu dituzte txosnagunean. The Riff Truckers, Ernia eta Ni Yuta ni Tuya taldeak igoko dira oholtza gainera.

## San Blas txapelketa trinketean

San Blas trinkete txapelketa goi mailako pilota-erriak ekarriko ditu Abadiñora. Finalerdia otsailaren 1ean jokatuko dituzte, 19:00etan, Tornosolon. Aitor Arabiourrutia abadiñarrak Jon Iturbegaz osatuko du bikotea, eta Ekhi Ziarrustaren eta Inhar Ugarteren kontra jokatuko dute. Ziarrusta eta Ugarte Frantziako Bigarren Mailako txapelkun geratu ziren orain aste bi, eta afizionatuen Lehenengo Mailan jokatzeko txartela irabazi zuten. Bigarren finalerdian Mikel Gonzalez berriztarrak eta Asier Aspuru abadiñarrak Ipar Euskal Herriko Monce eta Garat izango dituzte aurkari. Irabazleek otsailaren 8an jokatuko dute finala, 19:00etan.



Harritiko kideak proba batean parte hartzen.



Ezkerrean Asier Aspuru eta erdian Inhar Ugarte.

**ERLIA**  
CONTENEDORES  
[www.contenedoreserlia.com](http://www.contenedoreserlia.com)

- Geure hondakindegia dugu.
- Harobietako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO  
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

DI-DA GINEN...  
SORLAND GARA  
ABADIÑON  
JARRAITZEN DUGU

[www.sorland.eus](http://www.sorland.eus) • 946 810 261

MARKAK HAZTEN DIREN LURRA

ABARKETERUENA

Iturritxo kalea, 6 • Txanporta plaza  
48220 ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

San Blas egunean gurean:

Ogitartekoak  
Hamarretakoak  
Menuak  
Pintxoak

Giro euskalduna eta atsegina egun osoan!

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserriarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

# Baserriko produktuen eta abeltzainen plaza izango da San Blas azoka Abadiñon

Azken urteetako bideari jarraituz, 95 bat ekoizle batuko ditu San Blas eguneko azokak, Abadiñon. XXVII. Bestalde, Abelburu Erakusketara ehunka abelburu ekarriko dituzte

## AZOKA • AITZIBER BASAURI

Erroskillak eta eztarriko minaren aurkako kordela, San Blas eguneko ezinbesteko elementu bihurtu dira biak, baserriko produktuekin batera. Eguraldia lagun izan edo ez, milaka bisitari batuko ditu otsailaren 3an, Abadiñon, San Blas eguneko azokak. Aurten domeka izanik, are gehiago.

Urteetako bideari jarraituta antolatu dute abeltzain eta nekazarien azoka. 95 bat ekoizle erakutsi eta salduko dituzte euren baserriko produktuak. Abadiñon zein Durangaldean ekoiztutako produktuak ere izango dira, gainera. Bestalde, XXVII. Abelburu Erakusketak ehunka buru batuko ditu. Abadiñoko sei abeltzainen buruak ere bertan izango dira.

San Blas eguneko azoka ezinbesteko hitzordua dute Durangaldeko baserriar eta ekoizleek, landutako uzta plazaratzeko erakusleiko ezin hobea. Durangaldeko 18 ekoizle batuko ditu feriak, ortuak emandako barazki eta lekaleak erakutsi eta saldu guran; horietako sei dira abadiñarrak. Horiekin batera, gazta eta baserriko ogia saltzen duten 30 bat ekoizle elkartuko dira, eta bestelako produktuak (txerrikiak, eztia, pastela, txakolina...) lantzen dituzten beste 49 ekoizle. Hazi eta landareak hazten dituzten 11 mintegi (hiru eskualdekoak) ere egongo dira, eta baserriko tresneriagaz lan egiten duten 16 enpresa egongo dira ordezkaturak; hiru izango dira eskualdekoak.

## Ekologikoa, hazten ari den aukera

"Urterik urte berdintsua da azokan parte hartzen duen ekoizle kopurua. Hala ere, ekoizpen ekologi-

koak gero eta leku handiagoa du. Nabarmena da hori", antolatzaileen berbetan. Gaineratu dutenez, baserriar edo produktore gazteak joatea ere badute helburu, eta gazteen presentzia handitze aldera lan egiten ari dira. "Ez dira asko, baina gura genuke horretan eragitea. Sasoiak ere baldintzatzen du. Adibidez, artzain gazteen kasuan, zail dute gazta prest izatea saltzeko".

Gazta eta ogia, horiexek dira nagusi salmentei dagokienez. "Gutxiago saltzen dira ortuari eta barazkiak. Erosteko ohiturak aldatu ere egin dira", diote antolatzaileek. Hala ere, baserriko produktuen

## Abadiñoko San Blas eguneko azoka ezinbesteko hitzordua dute Durangaldeko baserriar eta ekoizleek.

eskaintza orekatua izaten da San Blas egunean. Ogia, txakolina, gazta, ortuariak, lekaleak, sagardoa... askotariko produktuak batzen ditu azokak, eta duen harreragaz pozik daude antolatzaileek. Eguraldiak ere izaten du eragina horretan.

San Blas eguneko azokaren bueltan bestelako hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte. Txistulariek eta bertsolariek ez dute hutsik egingo, urtero lez. Horrez gain, herri kirolen saioa ere egingo dute eguerdian: XIX. Urrezko Aizkolari binakako txapelketa jokatu dute, baita Urrezko Emakume Aizkolarien banakako Txapelketa ere. Urrezko harrijasotze saioa ere jokatuko dute. Jai giroa berotzeko, erromeria ere egongo da Lotxo taldeagaz.



**Azkonizaga**

**Edari banaketa**  
GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK  
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58  
azkonizaga@azkonizaga.com

**elebe**  
ileapaindegia

SOLARIUM BERTIKALA  
MASAJE LASAIGARRIA  
ILE-APAINDEGIA  
ESTETIZISTA

Iturritxo, 2 behea  
• ABADIÑO •  
Tel.: 946 550 105

**Beristain**  
NEKAZAL TRESNAK

OIDOR BERRIOZABALBEITIA, 14 - 48230 ELORRIO  
☎ 946 231 803 ✉ info@beristain.eus  
[www.beristain.eus](http://www.beristain.eus)

**Hiper Eroski Abadiñon  
erosteko modu berri bat**

**Ondo pasa  
San Blas  
jaietan!**

**EROSKI Abadiño**  
hipermerkatu  
Inoiz baino hurbilago

**EROSKI**  
Abadiño zurekin



Eguraldiari aurre eginda, iaz ere, milaka bisitari batu zituen Abadiñon San Blas eguneko abeltzainen eta nekazaritza produktuen azokak.

## San Blas egunean, probalekuan inoiz ibili gabeko idiak

Hiru idi bikotek jardungo dute lehenengoz idi probetan, txapelketatik kanpo



Otsailaren 4tik 11ra jokatuko da idi proba txapelketa.

### IDI-PROBAK • AITZIBER BASAURI

Idi probetan inoiz ikusi gabeko hiru idi pare arituko dira Abadiñon San Blas egunean. Lehen saioa izango dute probaleku batean, eta horrek ikusmina sortuko du idi dema zaleen artean. Txapelketatik kanpo antolatutako saio hau 17:00etan hasiko da. "Idi proben munduan denek ezagutzen dute elkar, zaila izaten da berritasunik ikustea. Berrizen edo Mallabian, kintopeko idi probak egiten dituzte. Idi gazteak izaten dira, behin edo birritan atera dira probalekuan. Baina Abadiñon ez da inoiz egin. Aurtan, probetan inoiz jardun gabeko idiak ikusteko aukera egongo da", azaldu dute antolatzaileek. Bizkaikoak dira idi pare bi; hirugarrena, gipuzkoarra.

Abadiñoko idi proba txapelketa, berriz, bihar-munean hasiko da, otsailaren 4an. Finala hilaren 11n izango da. Entzute handiko probalekua da Abadiñokoa, eta horregaz bat datorren maila erakutsi beharko dute parte hartuko duten 24 idi pareek; 44 unte egin beharko dituzte saria lortzeko.

## ABADIÑOKO BATZOKIA

Ondo pasa  
San Blasetan!



Ferialeku plaza, 3

## Gisasola Pentsuak

- EKO GARDEN -



Ortuko landareak  
urte guztian

Trañabarren, 27 · Matiena-Abadiño  
Tel.: 946 816 687  
gisasola.p@gmail.com

## MOTOS TABIRA

KONTZESIONARIO OFIZIALA

Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA  
ITZULI DA KEEWAY  
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxa: 94 681 40 68  
motostabira@outlook.es

[www.motostabira.es](http://www.motostabira.es)

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO



## ZAINDU HAGIN KLINIKA

Odontologia orokorra eta espezialitateak

Umeentzako odontologia • Ortodontzia (P.A.D.I. programa)  
Implanteak • Periodontzia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi  
Periodontzia espezializatua • Col.1005

Ferialeku, 1 • Abadiño  
Tel.: 94 465 73 42



## SERRATU S.L.

Ondo pasa San Blasetan!  
Galdaragintza eta itxierak  
Enpresetan mantentze-lanak

Astola, 48 ABADIÑO · Tel.: 946 201 837  
serratu@serratu.com · [www.serratu.com](http://www.serratu.com)





**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 5 URTEKO UMEENTZAKO TTIPIA PROIEKTUA

2018-19 ikasturte honetan, Andramari Zornotzako Ikastolak ekimen berria martxan jarri du LORALDIA ESKOLA Kultur Elkar-tearen eskutik. Haur Hezkuntzako 5 urteko geletan TTIPIA proiektua abiatu du.

Loraldia Eskola egitasmoarekin, hurrengo helburu pedagogikoak lortu nahi dira:

- Euskal Kulturaren transmisioan laguntzea
- Euskararen erabilera sustatzea
- Sormena suspertzea
- Euskal kultura ezagutzea
- Euskal kulturarekiko atxikimendua lortzea
- Ahozko eta gorputzeko adierazpena lortzea
- Elkarlana lantzea

Hortaz, proiektuak Euskal kulturaren transmisioan laguntzea du helburu. Honela, ikasleen ingurubarra osatzen duen gainontzeko komunitateekin (senideak, lagunak, aisialdiko kideak...), bizi diren herriaren erroekin eta egun existitzen diren errealitateekin, arte adierazpide desberdinak tes-tuinguruan kokatzeko gaitasuna izatea du helburua.

Haurrek ikusteko, asmatzeko, taldean lan egiteko, amesteko eta ondorioz, sortzeko duten beren beregiko gaitasunaz ahalbidetuz, sormena suspertzea da helburua. Haur hauei informazio eta baliabide berriak eskainiz, haiek sortutako ideia, irudi eta asmo berriak burutik euskarri fisikoetara ekartzeko duten gaitasuna landuko dute.

Modu askean, bere bidea egungo kultur eta arte adierazpen askoren jatorria zein den jakiteko balio du. Esan bezala, Euskal Kulturarekiko atxikimendua lortzea da helburu nagusienetako bat. Izan ere,

mundu digitalaren aroan, mundu globalizatuak etengabe zabal-tzen dituen mezu eta irudietatik at, kultur aniztasunaren garrantzia azpimarratzen da.

Adierazpena landu, ikaskideen arteko genero, arraza edota beste aniztasunetan aurki daitezkeen desberdintasunak onartuz aritu gara, errespetuz, maitasunez, alaitasunez. Haurrek taldean eta bakarka izan ditzaketan ahalik eta muga gehien eraisten ahaleginduko gara. Ikasle bakoitza bere adierazpide gustukoenean eta

naturalenean kokatuz eta gainontzekoen babes osoa lortuz. Ikasle bakoitzaren gaitasunak zein adierazpideak ikusteko balioko du

Egun jardunean aritzen diren 4 artista plastikoren lana ezagutu dute eta beraien diziplinak praktikan jarri: margoa, eskultura, marrazketa eta argazkigintza.

Proiektua azaroan burutu da Andramari Zornotzako Ikastolan eta haurrek sortutako lanak Zelaieta Zentroko erakusketa espazioan ikusi ahal izan dira.



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

“Biharko Euskaldun prestatu eta arduratsuak hezten”

- \* Euskal hezkuntza eredu berritzailea, hurbilekoa eta konprometitua.
- \* Bertoko ekoizleen produktu eta sasoikoez hornitutako jantoki zerbitzua.
- \* Bus: Usansolo, Igorre, Lemoa, Zornotza.

ibaizabal



**0-18**urtera  
arte

matrikulazio epea:  
urtarrilaren 28tik  
otsailaren 8ra

Bisita gidatuak eta informazio gehiago: ☎ 94 673 29 50 • zornotza@ikastola.eus • www.zornotzaikastola.eus





## Elkartasun maratonia ZUMBA DURANGO : Urtarrilak 27

### Geu Be elkartearen aldeko zumba maratonia, domekan

Laugarren urtez, Maria Elgezua eta Olga Otero zumba irakas-

leek Geu Be elkartearen aldeko zumba maratonia antolatu dute

Durangon. Maratoia 10:30ean hasiko da, Landakoko kiroldegian, eta ordu bi eta erdiko iraupena izango du.

Antolatzaileek dei egin diete herritarrei elkartasun maratonia parte hartzeko.

### Urtarrilaren 25ean

**ABADIÑO deialdia**  
**M8ko greba antolatze**  
**batzarra**, 19:00etan,  
Txanporta kultur etxean.

**ELORRIO antzerkia**  
**'Dracula' (Abubukaka**  
**konpainia)**, 20:30ean,  
Arriola antzokian.

**IURRETA ipuinak**  
**Eneko Haritza ipuin**  
**kontalaria**, 17:30ean,  
herri bibliotekan (3-4 urteko  
umeentzat, nagusi batek  
lagunduta). 18:00etan,  
bost urtetik gorakoentzat.

**IURRETA ipuinak**  
**Juan Gamba ipuin**  
**kontalaria**, 19:00etan,  
herri bibliotekan.  
Helduentzat.

**ZALDIBAR erakusketa**  
**ZALDIBART: Santi**  
**Etzebarriaren margo**  
**erakusketa**, 17:30ean,  
udal liburutegian. 3-9 urte  
arteko umeentzat.

**ZALDIBAR txotxongiloak**  
**Txotxongilo antzerkia,**  
**Rosa Martinezen**  
**eskutik**, Liburutegi  
Zaharrean.

**ZORNOTZA dantza**  
**'Baserri' ikuskizuna,**  
20:15ean, Zornotza  
Aretoa. **Larrua**  
**proiektuaren** eskutik.

### Urtarrilaren 26an

**BERRIZ antzerkia**  
**'Ghero. Azken**  
**euskalduna' (Tartean**  
**Teatro)**, 20:00etan,  
Berrizko Kultur Etxean.

**BERRIZ ipuinak**  
**'Ipuin zaparrada'**  
**Ines Bengoa ipuin**  
**kontalariaren eskutik**  
12:15ean, Berrizko Kultur  
Etxean.

**BERRIZ ikastaroa**  
**Askatasuna eta mugak.**  
**Zer da bidelagun izatea?**  
Ane Ablanedo irakaslearen  
ikastaroa, asteburuan,  
Umerrin.

**DURANGO deialdia**  
**Auzolan Eguna,**  
10:00etan, Sorginola  
gaztetxean. Bazkaltzeko  
aukera ere egongo da.

**DURANGO ikuskizuna**  
**Irrien Lagunak,**  
18:00etan, Plateruena  
kafe antzokian. Gaztainerre  
eguna, Kurutzia  
ikastolak antolatuta.

**DURANGO musika**  
**IntxauReggae: Selektah**  
**Stepi.** 23:30ean, Intxaurre  
elkartean.

### Urtarrilaren 28an

**ABADIÑO zine foruma**  
**Maitasun erromantikoari**  
**buruzko pelikula eta**  
**zine foruma**, 17:00etan,  
Pino plazako lokalean  
(Trañabarren 5, behea).  
12-18 urte bitarteko neska-  
mutilentzat. AbadiñoSex  
zerbitzuaren barruan.

### Urtarrilaren 29an eta 31n

**Durango antzerkia**  
**'Antzerki txikiak'**,  
17:00etan eta 17:30ean,  
Ibaizabal ikastolako  
ikasleen eskutik, 2-5 urte  
bitarteko haurrentzat,  
Plateruenean.

### Urtarrilaren 30ean

**BERRIZ filma**  
**'Happy end' film**  
**dokumentala**,  
19:00etan, Berrizko Kultur  
Etxean.

**DURANGO musika**  
**Dj Mini Ann31,**  
22:00etan, Txoria Nuen  
Maite tabernan. **Jan and**  
**Jai ekimenaren barruan.**

**DURANGO opera**  
**'La Traviata' opera**  
**zuzenean,**  
19:45ean, Zugaza zineman.

**IURRETA DANTZA**  
**2019ko Urriena**  
**antolatze batzar**  
**irekirako deia,**  
19:00etan, Ibarretxe kultur  
etxean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Urtarrileko agenda



25

### "IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"

Ipuin kontalaria "Eneko Haritza"  
17:30 3 4 urte bitartekoak heldu batez lagundurik.  
18:00 5 urtetik gorakoak.  
19:00 Helduen ipuin kontalaria

30

### "IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"

10:00 XL. irakurketa kluba.

21

### "ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA"

Zoru pelbiko ikastaroaren izen-ematea  
Goiuria Kultur gunean.  
Ikastaroaren hasiera otsailaren 15ean.

-

31

Biodantza ikastaroaren izen-ematea  
Goiuria Kultur gunean.  
Ikastaroaren hasiera otsailaren 15ean.

**MAÑARIA batzarra**  
**'Erein, Mañaria adin**  
**guztientzako herria'**  
**prozesuaren saioa,**  
17:00etan, Errose  
Bustintza kultur etxean.

### Urtarrilaren 31ra arte

**DURANGO ikastaroa**  
**'Humanitates 2019'**  
**ikastaroetarako izena**  
**emateko epea zabalik.**  
Informazioa: 94 603 00  
20 telefonoan edo Arte eta  
Historia Museon.

**ELORRIO erakusketa**  
**'Muga'.** Iturri kultur etxean.

**IURRETA ikastaroa Zoru**  
**pelbikoa eta Biodantza**  
**ikastaroetarako izena**  
**emateko epea zabalik.**  
Informazioa Anderebide  
emakume elkartean.

### Otsailaren 1ean

**ZALDIBAR jolasak**  
**'Mahai jolasen**  
**arratsaldeak'**,  
liburutegian. Izena  
emateko, bertan.

### Martxoaren 3ra arte

**DURANGO erakusketa**  
**'Bay Sala (1913-1995)'.**  
Durangoko Arte eta Historia  
Museon.

### Martxoaren 8tik 10era

**DURANGALDEA irteera**  
**Eski irteera Formigalera.**  
Izena emateko,  
martxoaren 1era arte:  
[alluitzmendialdea@gmail.com](mailto:alluitzmendialdea@gmail.com).  
Abadiñoako Alluitz eta  
Iurretako Zaldai mendi  
taldeek antolatuta.

## Zinea

### :: Berriz KULTUR ETXEA

• **Ben is back**  
barikua 25: 22:00  
domeka 27: 19:00

### :: Durango ZUGAZA

• **The Old Man & The Gun**  
barikua 25: 19:30/22:00  
zapatua 26: 20:00/22:30  
domeka 27: 18:30/20:30  
astelehena 28: 18:30/21:00  
martitzena 29: 20:00  
eguztiena 30: 20:00

• **La Leyenda de Rocky**  
barikua 25: 19:30/22:00  
zapatua 26: 17:00/19:30/22:30  
domeka 27: 17:30/20:00  
astelehena 28: 18:30/21:00  
martitzena 29: 20:00  
eguztiena 30: 20:00

• **Familia al instante**  
barikua 25: 19:30/22:00  
zapatua 26: 17:00/19:30/22:30  
domeka 27: 17:30/20:00  
astelehena 28: 18:30/21:00  
martitzen 29: 20:00

• **Los Lunnis y El Libro Mágico**  
zapatua 26: 17:30  
domeka 27: 16:30

### :: Elorrio ARRIOLA

• **Un asunto de familia**  
zapatua 26: 22:00  
domeka 27: 20:00  
astelehena 28: 20:00

• **Ralph rompe internet**  
domeka 27: 17:00

### :: Zornotza ARETOA

• **Gente que viene y bah!**  
zapatua 26: 19:30 - 22:00  
domeka 27: 20:15  
astelehena 28: 20:00

• **Asterix: Edabe magikoaren sekretua**  
zapatua 26: 17:00  
domeka 27: 17:00 (gaztelaniaz)

• **Kutxidazu bidea Isabel**  
martitzena 29: 20:15

# “Disko berria pauso bat izatea gustatuko litzaiguke, gure mugetatik irteteko”

Disko batek eta liburu batek osatzen dute 'Continuum Fracture', Orion Child durangarren hirugarren lana izango dena



**MUSIKA** • ARITZ MALDONADO

**2006an sortu zenetik, muturreko musika jorratu du Orion Child taldeak, power metalaren ildotik hasieran, eta death metal melodikotik hurbilago gaur egun. Euren bidea urratzen jarraitzen du Daedinek, Jonesek, Victorrek, Jandrok, Rafik eta JonKolek osaturiko seikoteak. 'Continuum Fracture' hirugarren lanaren grabaketa lanak amaituta, nahasketa lanetan murgilduta daude.**

**Crowdfunding kanpaina abiatu zenuen disko berriaren grabaketarako laguntza eske. Zelako harrera eduki du? Harrituta geratu gara gu ere, kanpaina hasi eta bost egunera gutxieneko diru kopurua bilduta geneu-**

kan eta. Ez genuen sinesten. Gero, moteldu egin da kanpaina, baina amaiera aldera azken bultzadaxo bat egotea espero dugu [5.300 euro lortu dituzte, eta helburua 3.000 eurokoa zen].

**Estudioko hirugarren lana duzue. Zeri buruzkoak dira hitzak?**

Orain artean, sekretupean gorde dugun gauza bat izan da, ez genuelako spoilerrik egin gura. Sortu dugun unibertso berri hau entzuleek lehen eskutik ezagutzea gura dugu. Diskoa kontzeptuala da, eta guk idatzi dugun zientzia fikziozko eleberri batez batera osatzen da.

**Musikalki, ostera, norantz jo duzue?**

Orion Child soinuaren aurrerapauso

bat dela uste dugu. Homogeneoa da guztia, baita trinkoagoa ere. Erritmoak irmoak eta oldarkorrak dira, baina melodiek ere badute euren pisua. Zaleei guri beste gustatzea espero dugu.

**Diskoa liburu batek ere osatzen du. Nolatan?**

Kontatzen dugun istorioa aurreko diskoagaz hasi zen. Aspalditik genuen buruan disko kontzeptual bat egitea. Bigarren laneko ideietako batzuk oinarri hartuta, ideia berriak batu eta forma eman genion. Denboragaz istorioa hazten joan da, eta sakondu egin dugu. Gainera, Asier Barato lagunaren laguntza eduki dugu istorioa garatzeko. Lan titanikoa izan da,

aurretik gutako inork ez baitu horrelakorik egin, baina emaitzak merezi duela uste dugu.

**Non grabatu duzue?**

Ahotsak Asuako Chromaticity estudioan grabatu ditugu; nahasketak ere bertan egin ditugu, eta baita masterra ere. Bestalde, gitarra eta baxu doinuak gure estudioan grabatu ditugu, Cursed Onion Studiosen. Azkenik, Jonkolek bere kabuz konposatu eta grabatu ditu teklatuak.

**2018ko ekainean amaitu zenuen bira, eta hilabete batzuk geroago disko berriagaz zatozte. Inspiratuta zeundeten?**

Egia esateko, aurreko biraren azken txanparako hasita geunden

material berriagaz lanean. Beraz, lana nahiko aurreratuta genuela heldu gara grabaziora. Hala ere, behar piloa egin behar izan dugu datak bat etortzeko, xehetasunak zehazteko eta kontzeptu zein musika guztia elkarrengatik jartzeko.

**Disko berri honek zer suposatuko du Orion Childen ibilbidean?**

Kontzertuak eskaintzea da beti gura izan duguna, ahalik eta gehien, eta gustatuko litzaiguke disko hau trampoline bat izatea horretarako. Ekitaldi garrantzitsuren batean aukera izatea gustatuko litzaiguke, gure mugez haratago irteteko.

**Metala osasuntsu dagoela uste duzue? Eta Durangaldean?**

Sarri esan izan dugu, metalak, musika mailan, osasun bikaina

“**Aspalditik genuen buruan disko kontzeptual bat egitea; zientzia fikziozko eleberri batek osatzen du**”

duela. Asko dira gure inguruan sortzen ari diren taldeak, oso maila onekoak, gainera. Beste kontu bat merkatua litzateke. Gero eta zailagoa da jendea kontzertuetara erakartzea, eta arlo horretan guri dagokigu borrokatzea. Durangaldean, orain urte batzuk baino geldoago dago kontua. Lehen, talde gehiago zeuden kontzertuak emateko prest. Hala ere, geldi egon diren taldeetako batzuk martxan jarri dira berriro, eta berriak ere sortu dira, epe laburrean zeresana emango dutenak. Guk gure errit-mora jarraitzen dugu, ahalik eta zaratarik gehien ateratzen.

**Baduzue biraren bat egiteko asmorik? On Fire promotoreagaz gabilta lanean, eta 2019rako hainbat data ditugu lotuta. Hala ere, gehiago lortzeko asmoz gabilta.**

**Zerbait gehitzeko?**

Bihotzez eskerrak eman gura dizkiegu egiten gabiltzan bide honetan gure alboan egon direnei, eurak barik hau dena ez litzateke-lako posible izango.

**ALBERDI HARATEGIA**

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

# Tradizioaren berrinterpretazioa dakar Larruak, baserriaren sinbologiagaz

Dantza ikuskizuna barikuan, urtarrilak 25, ikusi ahalko da Zornotza Aretoan, 20:15ean



Jordi Vilasecak prestatu ditu koreografiak.

## ANTZERKIA • A.M.

Euskal kulturaren zehar bidaia bat proposatzen du *Baserri* obrak. Susturiturik dauden ohiturak berrinterpretatu eta gaur egungo gizartera dakartza Larrua proiektuaren lan berriak. Tradizioaren eta abangoardiaren muga ezabatu, baserriaren sinbologiagaz bete eta mundukoa eta mitologikoa denaren arteko paralelismoak uztartzen ditu *Baserri*. Jordi Vilaseca da koreografoa,

**Gasteizen du egoitza Larrua proiektua konpainiak, eta bigarren lana dute 'Baserri'**

**Manuel Ballabroga, Helena Wiolhelmsson, Aritz Lopez eta Jordi Vilaseca dira dantzariak**

eta Manuel Ballabroga, Helena Wiolhelmsson, Aritz Lopez eta Vilaseca bera dira dantzariak. Ordubeteko iraupena du funtzioak, guztira.

Egoitza Gasteizen du Larrua proiektuak, eta aurkezten duten bigarren lana da *Baserri*. Sarearen Dantza Zirkuituaren barruan eskainiko dute.

## Gai librea

Ihntza Orbegozo Igartua Plateruena



### Zaindu (maite) duzun hori

Azkenaldian zeresan ugari eman du Berri Txarrak ete-naldi mugagabearen iragarpenak eta agur esateko antolatutako birak. Asko izan dira Iruñeko azken kontzertuetarako sarrerarik gabe gelditu direnak eta eztabaida sortu da, zaleen ustez "normalean kontzertuetara joaten ez diren askok sarrera lortu dutelako eta betiko zale asko joan ezinik gelditu direlako". Ez zaie arrazoirik falta, baina zale eta ez zale, guztiek dute kontzertuetara joateko eskubide bera. Dena den, horrek baino gehiago arduratzen nau guztiek kontzertuetara joateko eskubide bera izanik, zein jende gutxi inguratu izan den azken urteotan astebururo han-hemenka dauden zuzenekoetara nahiz eta azken hilabeteotan goranzko joera bat ere nabari izan dudana, zeren jakina da, Berri Txarrak kasua ez da errealitatearen ispilu.

Azken urteotan izugarritzko hazkunde ederra eman da Euskal musikarien aldetik; pozgarria da inongo konplexurik gabe gustuko duten estiloa jorratzen dituzten taldeak ikusi eta entzutea, eta iruditzen zait entzulegoaren zati zabal baten gustuak asetzeko bezalako musika panorama daukagula gaur egun.

Beraz, lehen aipatu Iruñeko kontzertuetarako sarrerarik lortu ez duten zaleek taldea ikusteko beste hainbat aukera aprobetxatu ahal izatea espero dut, baina, batez ere, urteko kultur gertakizunik garrantzitsuenetakoa delako bertaritzen diren horiek zuzenekoaren zera bereziaz kutsatu eta beste batzuetara joaten hasteak poz-tuko ninduke. Agurtu ditza-gun badoazenak eta zaindu ditza-gun gelditzen direnak, merezi duten bezala.

# Azken euskaldunaren istorioa kontatzen du Tarteanen 'Ghero' antzezlan berriak

Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko du Tartean antzerki konpainiak 'Ghero' lana, urtarrilaren 26an, 20:00etan

## ANTZERKIA • A.M.

Hizkuntzen aniztasunaren aldeko kantua izan gura du Tartean antzerki konpainiaren *Ghero* azkeneko lanak. Euskaltzaindiagaz batera ekoiztu dute obra. Ikuslea 3000. urtera darama obrak, azkeneko euskaldunaren istorioa kontatzeko. Patxo Telleriak idatzi du dramaturgia, eta Jokin Oregik zuzendu. Aktore lanetan, Telle-

ria beraz gainera, Ane Pikaza, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri eta Mikel Martinez aritu dira. Hamaika hizkuntza erabiltzen dira ikuskizunean; euskaraz gainera, gaztelania, frantsesa, katalana, latina eta ingelesa, besteak beste. Eszenografia Ana Garayk egin du, eta Iñaki Salvador pianistak konposatu du musika, antzezlanerako espreki.



3000. urtera darama ikuslea 'Ghero' obrak. GUILLERMO CASAS.

## IURRETAKO HEZKUNTZA eremua

Olaburu auzunea, IURRETA

--AURREMATRIKULAZIOA--  
Urtarrilaren 28tik otsailak 8ra

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraioa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak Iurretan.

MAIZTEGI  
946 810 937



OROBIOGOITIA  
944 288 000



2-12 urte  
MAIZTEGI  
HH eta LH



12-18 urte  
OROBIOGOITIA DBH eta  
Batxilergoa



**Eunate Oregi Bengoetxea**  
Eskubaloi jokalaria  
Kukullaga taldean.  
Durango | 2001

## “Eskubaloian pozik eta nire saltsan nabil, gustuko dudana egiten”

Durangar gazteak eskubaloiko Zilarrezko Ligan jokatzeko du, Etxebarriko Kukullaga taldeagaz

**ESKUBALOIA** • JOSEBA DERTEANO

**Bere ibilbide laburrean kirolaren gazi-gozoak probatutakoa da Eunate Oregi. Urtebete baino gehiagoan kantxetatik aldendu zuen belau-neko lesioari aurre egin behar izan zion gazte-gaztetan. Esperientzia hartatik indartuta irten zela dio. Gaur egun, kirolaren alde gozoa dastatzen dabil. Zilarrezko Ligan dabilen Kukullagaren talde nagusian tokia egiten dabil apurka-apurka, eta Euskadiko selekzioan ohikoa da.**

**Zure hastapenen inguruan aipatu izan duzu eskubaloiak zuretzat egoniko kirola zirudiela. Zerk erakarri zintuen kirol horretatik?**

Jesuitak ikastetxean saskibaloia, futbola eta errugbia probatu nituen, eta, tira, ez nintzen nabarmentzen. Eskubaloiak ez ninduen bereziki erakartzen, baina, lagunak zebiltzanez, probatzea erabaki nuen. Eta ondo moldatzen nintzela konturatu nintzen. Oso ona nintzen! Apurka-apurka kirol berezia bihurtu zen niretzat. Jende asko ezagutzeko eta lagun asko egiteko atea zabaldu dit.

**Zure kirol ibilbide laburrean lesioen alde latza bizitzea egokitu zaizu. Haur-kategorian nenbilela gertatu**

zen. Nik lesioei buruz pentsatu ere ez nuen egiten. Adin horretako gazte batek zelan pentsatuko du, ba, horretan! Partidu batean belau-neko lotailu gurutzatua apurtu nuen. Orduan Euskadiko selekzioagaz ere banenbilen partiduak jokatzeko eta Espainiako txapelketara joateko ideia neukan. Ezin izan nintzen joan, jakina. Bost hilabetez mediku batetik bestera ibili nintzen: batzuek ebakuntza egitea gomendatzen zidaten eta beste batzuek horretarako gazteegia nintzela zioten. Azkenean, ebakuntza egin zidaten, Gasteizen. Ebakuntzaren ostean, zortzi hilabete gogor eman nituen erreperatzen.

**Zer irakaspen atera zenuen esperientzia horretatik?**

Kirol arloan zein arlo pertsonalean indartuta irten nintzen esperientzia horretatik. Lesio hori izan ez banu, ez nintzen gaur egun naizena izango. Erantzukizunez jokatzeko eta eguneroko lanean konstantea izaten erakutsi zidan. Bizitzan helburuak markatzen dituzu eta egun batetik bestera helduko zarela pentsatzen duzu, baina hori ez da errealitatea. Oztopoak bizitzaren parte dira eta euren aurre egiten asmatu behar da.

**Kantxetara itzuli eta zenbatera heldu zen Kukullagaren proposamena?**

Ni oraindino kantxetara itzuli arreretik heldu zen. Bizkaiko eta Euskadiko selekzioetatik ezagutzen ninduten.

**Etxebarriko taldera batzea pauso bat baino jauzi bat ematea izan zen?**

Gutziz. Beste mundu bat zen. Hemen ondo pasatzeko helburuagaz nenbilen, baina Kukullagan ikuspuntu lehorragoa dago. "Behar den maila emateko kapaza izango ote naiz?", galdetzen nion neure buruari. Horrelako dudak buruan bueltaka egoten dira.

“**Lesio hori izan ez banu, ez nintzen gaur egungoa izango; indartuta irten nintzen esperientzia hartatik**”

“**Gazteen mailatik Zilarrezko Ligara hainbesteko alderik ez zegoela uste nuen, baina oker nenbilen**”

**Beheko mailetan hasi zinen.**

Kadeteen bigarren mailan hasi nintzen eta azkenengo urte biak gazteen taldean daramatzat.

**Noiz debutatu zenuen talde nagusiagaz?**

Iaz izan zen, 16 urteagaz. Nagusiekin entrenatzen nenbilen. Ligako azken partiduaren, taldeak ez zuen ezer jokoa eta entrenatzaileak ea deialdian sartu gura nuen galdetu

zidan. Nik baietz esan nion, zelan ez! Minutu gutxi jokatu nituen, baina oso gustura sentitu nintzen.

**Beste jauzi bat?**

Bai, bai. Gazteen mailatik Zilarrezko Ligara hainbesteko alderik ez zegoela uste nuen, baina oso oker nenbilen. Erritmoa, indarra, abiadura... Beste gauza bat da.

**Harrezkero, zenbat jokatu duzu nagusiekin?**

Kopako partiduak eta aurtengo ligako ia denak. Ez ditut minutu asko jokatzeko oraingoz.

**Gazteen taldea utzi duzu?**

Ez. Honelako asteburuak izan ditut: zapatu goizean partidua gazteekin, arratsaldean nagusiekin, eta domekan, entrenamendua Euskadiko selekzioagaz. Imajinatu! Baina ez da hori bakarrik: ikasketak hor daude, nire lagunak ere badituz, mutil-laguna... Denentzat denbora atera behar! Baina eskubaloian pozik eta nire saltsan nabil, gustuko dudana egiten.

**Zeintzuk dira zure indarguneak eta ahulguneak jokalaritza moduan?**

Hobetu beharrekoa, argi eta garbi, defentsako lana da. Ez dut ondo defendatzen, horrela da. Gogo guztia jartzen dut, baina horixe da nire ahulgune nagusia. Erasoko jokoa gustatzen zait. Indargunea? Jokalari argia edo ernea naizela esango nuke.

**Durangoko Ibaizabal eskubaloi taldearen gorabehera jarraitzen diezu?**

Bai, joaten naiz partiduak ikustera eta animatzen ditut. Lagunak ditut han. Kirol federaturako salto ematean, urtebete inguru eman nuen han eta Ibaizabal nire talde moduan sentitzen dut.



Eunate Oregi Euskadiko selekzioagaz jokatu duen partidu batean.

# Abadiño futbol taldeak 46 jardunaldi daramatza galdu barik eta Maila Gorenera igotzeko hautagai sendoa da

2017ko urritik hona inork ez du menderatu Lehenengo Erregionalean Gorka Moreno abadiñarrak entrenatzen duen taldea

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Hamasei hilabete joan dira Abadiño futbol taldeak azkeneko porrotajasan zuenetik. 2017ko urrian izan zen, Astolan, geroago mailaz igoko zen Astrabudua taldearen aurka. Harrezkero, Lehenengo Erregionalean jokatu dituzten 46 partiduetan, denboraldi bitan banatuta, jokalariek behin ere ez dira burumakur sartu aldageletara.

Gorka Moreno abadiñarrak orain urte bi taldearen gidaritzan hartu zuenean hasi zen bolada ona. Abadiño Maila Gorenetik jaitsi berritan zegoen eta ezkortasuna baikortasun bihurtzen asmatu zuen. Prozesu horretan, jokalariek babes osoa izan duela dio. "Meritua jokalaria da. Euren lanari esker heldu gara gaur egun gauden tokira", goraipatu ditu.

Iaz, denboraldi osoan partidu bakarra galduta, ez ziren mailazigo, Astrabudua eta Gernika B oraindino hobeto aritu zirelako. Aurten lider amaitu dute lehenengo itzulia, baina orpoz orpo dituzte

Baskonia B zein Mungia, eta azken unera arte borroka estua mantenduko dutela dirudi. Ildo horretatik, bidean geratu diren puntuez gogoratu da Moreno. "Zazpi berdinketa daramatzagu. Batzuetan ez dugu

asmatu partidu amaieretan, eta akatsak ere egin ditugu. Bigarren itzulira begira hobetu beharreko kontua da", dio. Aurten Abadiño igoko balitz, bere historian bigarrenez jokatuko luke Maila Gorenean.



Harrobian hazitako jokalariek gazteek eta esperientzia handiko futbolariak osatzen dute aurtengo taldea.

## Jokaldia

Iñaki  
Iza Zarazua  
Pilotari ohia



## Atzelarien agintea

Esku pilotan, gehienetan, aurrelariak jasotzen dituzte laudorioak eta txaloak. Ez dago tanto bat ongi errematatzea bezalakorik ikuslea aulkitik zutituarazteko eta zalearengan zirrara pizteko.

Jokatzen ari den binakako txapelketan, ordea, atzelariak izaten ari dira protagonistak. Saillkapenari erreparatuta, atzelari onenak aurreikuspenak betetzen ari direla esan daiteke. Inork ez du zalantzan jartzen Rezusta, Zabaleta eta Albisu direla azken denboraldian diferentzia gehien markatzen ari diren atzelariak. Horrela, ez du ematen zailtasun handirik izango dutenik finalerdietan egoteko.

Mariezkurrena II.a, ordea, debutaria izanik, txapelketako sorpresarik ederrena izaten ari da zalantzarik gabe. Lau hilabete daramatza profesionalean eta erakustaldiz erakustaldi demostratu du, ondo bidean, goi mailako atzelaria izango dela. Momentuz, finalurrekoetara sailkatzeko azken postua berea da.

Laugarren postutik Ladis Galarza dagoen bosgarrenera bi garaipeneko koska dago sailkapenean. Baraibarko pilotariak inoiz baino sendoago dagoela erakutsi du txapelketan zehar eta Aspe enpresak emandako aukera aprobetxatzen ari dela esan daiteke, eta finalurrekoetara sailkatzeko borrokan darrai.

Azkeneko hiru postuetan dauden atzelariak lan zailak izan dituzte partidu gehienetan. Aurretik aipatuak izan diren atzelariekin konparatuz, Martija, Imaz eta Aretxabaleta, kolpez dezentez gutxiago dira eta, horren ondorioz, partidu askotan errebotetik gertu dauden koadroetan lanean aritzea egokitu zaie.

## Asteko kirolaria

# "Berrizko krosean sentsazio onak izan nituen eta lasterketa ona irten zitzaidan"

Futbola utzi ostean, mendiko lasterketetan eta krosean zentratu da Gontzal Murgoitio

**Durungaldeko hainbat korrikari Bizkaiko txapelkun geratu ziren joan zen asteburuko Berrizko krosean. Durango Kirol Taldeko Gontzal Murgoitio elorriarra da eurretako bat. Junior mailako txapela jantzi zuen, kros bikaina osatuta.**

**Berrizko krosean 47 segundoko aldea atera zenien bigarren sailkatuari. Nagusitasunez gailendu zinen.**

Nahiko argi neukan aurrean ibiltzeko aukerak nituela. Aurreko asteburuan, Elgoibarko krosean maila handiko krosariak aritu ziren eta Euskal Herriko bigarren geratu nintzen. Nire aurretik geratu zena hernaniarra zen,

gipuzkoarra. Beraz, Bizkaiko txapelketan lehenengoan artean ibiltzeko aukerak ikusten nizekion neure buruari. Berrizko krosean sentsazio onak izan nituen eta lasterketa ona irten zitzaidan.

**Egun euritsua izan zen eta horrek astundu egin zuen zirkuitua. Mesederako ala kalterako izan zenuen?**

Mesederako esango nuke. Mendian eta mendiko lasterketetan ibiltzen naizenez, ondo etorri zitzaidan. Gainera, aldapak daude, eta ibilbide exigentea da. Nire gaitasunetarako aproposa den zirkuitua da.

**Aurtengo denboraldiari begira, zeintzuk izango dira zure hitzordu nagusiak?**

Otsailaren hasieran Euskadiko Kopa lehiatuko da Ordizian, eta horixe dut hitzorduetako bat. Horren ostean, mendiko lasterketetan zentratuko naiz. Euskal Herriko txapelketa Tolosan izango da, ekainean, eta ondo ibiltzea gura nuke.

**Futboleko ibilitakoa zara, ezta?**

Bai, Elorrio futbol taldean jokatu dut. Denbora batez, futbola eta mendiko probak, biak uztartu nituen. Iazko maiatzean utzi nuen futbola.

**Mendi lasterketak futbola baino gehiago gustatzen zaizkizu?**

Mendi lasterketak askoz gehiago gustatzen zaizkit, bai. Futbola utzi nuen sasoi inguruan mendi laster-



GONTZAL MURGOITIO ESPARZA

Elorrio, 2001

keten Euskal Herriko txapelketan parte hartu eta irabazi egin nuen, kadete mailan. Oso gustura ibili nintzen. Beraz, mendian jarraitzea erabaki nuen.

**Nogaz entrenatzen zara?**

Mario Cruz elorriarragaz irtetzen naiz. Ni baino urtebete gazteagoa da eta elkarregaz gabiltza beti. Markel de la Fuente elorriarragaz ere entrenatzen naiz mendian, eta Durango Kirol Taldekoekin astero batzen naiz serieak eginez entrenatzeko.

**uxarte**  
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

**ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHAR ENKARGUZ**  
Gutxienez 15 laguneko taldeentzako

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

Otsailaren 7an 19:00etan, AHOZTAR ZELAIETA bere azken liburua aurkezten izango dugu  
**"LA TRAMA DEL 4%"**

**hitz** artekalea, 23 durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena

# Ostalaritza gida

anboto

 **Durango**



**PLATERUENA** Kafe antzokia  
Landako etorbidea, 4 - DURANGO  
**Tel.: 946 030 300**  
www.plateruena.eus

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunerokoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

 **Durango**



**KOBIKA JATETXEA**  
San Ignazio, 8 - DURANGO

**Tel.: 946 810 003**  
Egile sukaldaritza eta tradizionala.  
Menu bereziak eta karta.

 **Abadiño**



**URRATS**  
Juan Antonio Abasolo kalea, 3 - DURANGO  
**Tel.: 946 812 518**

Gosariak, bokatak eta pintxoak. Bariku eta zapatu gauean hanburesak. Zapatu eta domeketan babarrunak enkarguz.

 **Muxika**



**ASTEI JATETXEA**  
Muniketa auzoa 8, MUXIKA  
**Tel.: 946 732 318**

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak...  
Enpresa bazkariak. Eguneko menua.

 **Durango**



**GORA GORA**  
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO  
**Tel.: 946 811 384**

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 **Abadiño**



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

 **Durango**



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**


Alde zaharrean kokatuta.  
Pintxo gozoak eta giro alaia.

 **Durango**



**OLAJAUREGI JATETXEA**  
Kurutzaga Kalea, 52 - DURANGO  
**Tel.: 946 200 864**  
www.olajauregi-jatetxea.com

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak.  
Egunero zabalik.



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

R.P.S.: 145-13



**Adinara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

HAUXE BAI JENEROAI!

## OSAKIDETZAKO OSASUN ZENTRO BATEAN, ZEINAREN IZENAZ EZ DUDAN AKORDATU NAHI, BAZEN BEHIN...

000

### APAIZEN GELA

#### Sala de Curas

Osasun Zentroan arazorik ez izateko analisi eta gainerako probetako zitekin EZINBESTEKOA DA zita eskatzea bolanteak eduki bezain laster ber...

@garbineubeda

## Zorion Agurrak

zorionak@anboto.org · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

### GOZATU

**GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO -  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Martin eta Telmo (746. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.




Zorionak, maitia! Espero dugu pozik eta alai jarraitzea. Besarkada handi bat Danelen, aitaren eta amaren partez.



Zorionak, **Kali**! Egun ona pasa!



Zorionak, bikote! **Markelek** bixer eta **Jonek** eguaztenien 6 urte beteko dabez. Mosu handi bana.



Ze aguro pasau dan denbora, dagoeneko 12 urte bete dituzu. Zorionak zure ahizparen eta aitaren partez.




11 urte bete ditu gure perla honek. Zorionak eta 11 mila muxu!



Barikuan gure neska handiak 4 urte betetzen ditu. Zorionak, laztana! Egun polita izan daizula! Muxu handi bat etxekoan partez!




Zorionak, **Inhar**! Urtarrilaren 28an beteko dituzu urteak. Musu handi bat Eiderren, amaren eta aitaren partez.



Zorionak, **Ainhoa**! Egun ona pasa!



Urtarrilaren 24an gure etxeko txikitxoak 5 urte egin zituen. Mosu potolo bat zure neba Oinatzen, aitaren eta amatxoren partez.



Zorionak, **Endika** zure 7. urtebetetzean! Zure aita Lander, ama Ana, Irati, Luzia, Eder, aitteitte Karlos, amama Enkarna eta beste senideen partez. Egun polita eta alaia pasa!

## Botikak

<b>BARIKUA, 25 - 09:00-09:00</b>	<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>09:00-22:00</b>
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>	<b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>DOMEKA, 27 - 09:00-09:00</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>	<b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>	<b>MARTITZENA, 29 - 09:00-09:00</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>	<b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>MUGICA</b> Andra Maria 9 - <b>DURANGO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>	<b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>	<b>09:00-22:00</b>	<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>EGUENA, 31 - 09:00-09:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>JAIO-ABENDIBAR</b> Errekakale 6. - <b>ELORRIO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>09:00-22:00</b>	<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>
<b>ZAPATUA, 26 - 09:00-09:00</b>	<b>EGUREN, ISABEL</b> Trañabarren 15. - <b>ABADIÑO</b>	<b>ASTELEHENA, 28 - 09:00-09:00</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2. - <b>DURANGO</b>	<b>MELERO, ROSA</b> Mari San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>09:00-22:00</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>EGUAZTENA, 30 09:00-09:00</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>09:00-13:30</b>	<b>09:00-14:00</b>	<b>09:00-22:00</b>	<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>	<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>	<b>09:00-22:00</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>UNAMUNZAGA</b> Murratorre 2C - <b>DURANGO</b>	<b>09:00-22:00</b>			

# CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

## MACOBER

Chimeneas

### ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

## DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Whatsapp bidez  
**Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita**

Telegram bidez  
**Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian**

anboto
@anboto
@anboto
@anboto

# “Osasun pilula bat da yoga, oso osasungarria, bai gorputzerako, bai bururako”

Yoga eskolak ematen ditu Zulma Noemi Secuelok, Atxondoko Udalak utzitako lokalean. Bihotza Euskal Herrian duen argentinarra da bera, eta hemen etxean bezala sentitzen da

**AKUILUA • AITZIBER BASAURI**

**Argentinarraren askoren arbasoek Euskal Herrian dute jatorria. Zulma Noemi Secueloren arbasoek ere bai, eta, beraz, lotura berezia sentitzen du Euskal Herriagaz. Yoga dinamikoa, hasiberri direntzako ariketa lasaia eta artrosia edo artritis dutenei zuzendutako yoga eskolak ematen ditu orain hiru urtetik hona. Mugikortasun arazoak dituztenentzat ere bai. 60 ikasle ditu.**

**Zerk ekarri zintuen Argentinako Patagoniatik Atxondora?**

Kasualitatez etorri nintzen. Aurretik, 12 urtez Alacanten (Valentzia) bizi izan nintzen. Argentinak bizi zuen egoera kritikoa aurrean, 40 urte bete baino lehen, Europan bide berri bati ekitea erabaki nuen; argentinarraren guztiok ditugu eta aita-amamak hemen. Orduan, Malagara joateko aukera izan nuen. Hilabete batzuk egin nituen han, Alacantera joan arte. Niretzako moduko tokia ez zela-eta, denbora gutxira Argentinara bueltatzeko ere izan nintzen, baina, azkenean, alabak ekarri nituen eta bertan geratu nintzen. Orain hiru urte Atxondora etorri nintzen arte. Alabak lehenago etorri ziren; bost urte daramate hemen. Argentinarraren askok Euskal Herrian dugu bihotza.

**Arbaso euskaldunak dituzue askok.**

Arakaten hasita, ia argentinarraren guztiok ditugu abizen euskaldunak. Nik arbaso galiziarrek, euskaldunak eta italiarrak ditut. Burugogorrek ere bagara. Norbait zerbaitetan tematzen denean, segituan esaten diogu: “Zer zara, euskaldunen seme-alaba?”. Harreman handia dago.

**Bizimodua oso desberdina da hemen?**

Ez. Patagonian kilometro karratu bakoitzeko pertsona bat bizi da,

eta klimari eta jatekoari dago-kienez, etxean bezala sentitzen naiz. Alacanten deserrotze handia sentitu nuen; 150.000 biztanle ditu. Atxondon Argentinako bizimodura bueltatu naiz. Gainera, eurria maite dut, pozik sentitzen naiz eurria ari duenean, eta hemen hainbeste egiten duenez...

**Eta nola moldatzen zara euskaraz?**

Orduetgia dela-eta, arazoak ditut euskaltegiara joateko, baina saiatzen naiz. Zerbakiakin eta agurrekin hasi naiz. Ezagutzen ditudan berbak erabiltzen ditut. Illobera ere erakusten dit. Valentzian jaio zen, baina txikitatik erakutsi diote euskaraz. Elx-en (Valentzia) euskaraz ikasten ibilia da alaba. Bost laguneko taldea ziren eta denak etorri dira Euskal Herrira. Illobagaz eta urteekin ikasiko dut euskaraz.

**Yoga irakasten duzu. Urte asko daramatzazu yoga egiten?**

Elx-en hasi ginen alabak eta ni, laurok. Guztiz harrapatu nin-

duen. Maiteminduta zaudenean bezala sentitzen zara: pozik, barre egiteko gogoz. Orduetgia ematen duzu behatz potoloan pentsatzen, beste ezertan ere ez.

Inoiz ere ez dut pentsatu eskolak ematea, baina etorri nintzenean, hainbeste maite nuen hori besteei erakustea pentsatu nuen.

**Modan dago yoga?**

Bai. Jen-

deak ez daki asko yogari buruz, eta medikuak aginduta doaz asko. Lunbagoa edo ziatika osatzen ditu, indartsu sentiarazten zaitu, bularra zabaltzen du... Giharrak indartsu eta luzatuta izatea lortzen dugu. Behin eginda, badakizu errepikatu-ko duzula.

**Gorputzeko korapiloak ezik, burua ere askatzen du yogak?**

Lotuta daude biak. Buruan arazoren bat badarabilzu, gorputzean ere igarriko duzu. Gorputza meditatze-ko prestatzea da yogaren helburua. Meditazio aktiboa da, eta meditazioak benetan laguntzen du. Yoga denontzat da onuragarria. Osasun pilula bat da, oso osasungarria, bai gorputzerako, bai bururako.

**Ez du praktika erraza ematen...**

Hasieran kosta egiten da, sustoa ere hartu zenezake. Hala ere, luza-penak ahal diren neurrian egiten dira. Bizkarra luzatzea da helburu nagusia, bizkarra delako ipurtezu-urretik burezurerrako lotura. Ondo arnastea ere ezinbestekoa da. Bizkarrezurreko giharrak landuz, masailezurra lasaitzen da, eta, yogiek diotenez, ariketa hipopresiboek gazte mantentzen laguntzen dute.

Arnasketa egiterakoan hartutako oxigenoagaz elikatzen dira zelulak.

**Gure burua ezagutzeko tresna da yoga?**

Bai. Bizi osorako tresna, behin hartuta inoiz utziko ez duzuna. Iaz urte gogorra izan nuen eta yogak asko lagundu dit. Egunean minutu bat hartu behar dugu arnasteko, arnasketa kontzientea egiteko.

**Lau hortza**

Sergio Murillo Corzo  
Ekonomilaria



**Baibidea**

Herrietako kaleak eta zabal-guneak, azaleko orbainak eta zimurrak bezala, historiaren pasarte batzuen leku-koak dira. Gure bizitzaren kontakizuna egiteko modu asko egon daitezkeen arren, gertaera batzuk derrigorrez aipatu behar dira. Holan gertatzen da, bihotz-transplante bat gainditu dauan pertsonaren kasuan; goitik behera doan orbainak, bizitza baten lehena eta oraina marrazten ditu.

Azal azpian, taup-taup; bizitza barria borborrean. Gure Herriak ere, itxitako orbainak daukatz. Iraganaren mugarri, etorkizunaren has-tapenen lekuko, bizitza barri baten borborrean zain.

Herriak ez dira egun batean egiten. Egunez egun, egindako hautuen metaketa dira, komunitatea osotzen dogun gizaki bakoitzak hartutako erabakien ondorio. Horregatik, eten barik, jarraitu behar dogu korrika, erabakiak hartzen, zer eta leku berean egoteko, *Alizia lurralde miresgarri*aneko ka-tuaren gisan.

Eta bizitza dan lurralde miresgarri horretan aurrera goazela, aukeratutako bidea edozein dala ere, badakigu ondorioak dituen. Jorratu-tako bideek azala kolorez, zimurrez eta orbainez janz-ten dabe. Erantzi ezinezko bidearen lekuko bihurtuko dira, gure historiaren pa-sarte.

Herri bizia, dinamikoa eta konektatua izateari eutsi behar deusagu. Horretarako, ukazioaren eta geldialdiaren bidea alde batera itzi, garenetik —bihotz, orbain, zimur eta guzti— abiatu eta baibideari ziztu bizian heldu behar deusagu.



**Zulma Noemi Secuelo**  
Yoga irakaslea  
Atxondon  
Argentina |  
1965

HAUR HEZKUNTZA | LEHEN HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

**Erdu Gurekin!** Berrizko euskal eskola publikoa

**LEARRETA-MARKINA eskola**

Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ  
Tel.: 946 824 344 | 014097aa@hezkuntza.net  
www.learretamarkinaberriz.hezkuntza.net

**IES BERRIZ BHI**

Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ  
Tel.: 946 824 962 - 015073aa@hezkuntza.net  
www.berrizbhi.com

AURREMATRIKULA  
Urtarrilaren 28tik  
otsailaren 8rarte

